

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Departamento de
Educación Física y Deportiva

Gorputz eta Kirol
Hezkuntzako Saila

EMANKORTASUN HANDIENA DUTEN DIZIPLINA OLINPIKOETAKO TALENTU HAUTEMATE PROZESUAN ERABILTZEN DIREN PROGRAMEN ERREBISIOA: METAANALISIRANTZ HURBILKETA

Gradu Amaierako Lana

Aurkeztua:

USABIAGA BALERDI, ANA

Zuzendua:

GARAY PLAZA, JAVIER OSCAR

Ikasturtea: 2014/2015

Ohiko deialdia

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatea

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	3
TAULEN ZERRENDA	4
IRUDIEN ZERRENDA	7
SARRERA	9
JUSTIFIKAZIOA	12
AURREKARIAK	14
LANAREN HELBURUAK.....	18
JOKO OLINPIKOAK	20
1- Sarrera	
2- Azkeneko 3 Joko Olinpikoetako dominen irabazleen estatistikak	
3- Nazio garaileen dominak aukeratutako 3 kiroletan	
4- Kirol bakoitzean arrakasta duten nazioak	
5- Dominen irabazleen sailkapena biztanleria kontutan izanik	
6- Espainiaren kasua	
7- Diziplinak	
7.1- Atletismoa	
7.2- Igeriketa	
7.3 – Pistako Txirrindularitza	
8- Abiadura eta iraupeneko probak	
9- Bakarkako eta taldekako probak	
METODOLOGIA	50
TALENTUAK	63
ONDORIOAK	91
BIBLIOGRAFIA	94

TAULEN ZERRENDA

- 1.go taula: Londreseko Joko Olinpikoetako dominak eta ehunekoen zerrenda
2. taula: Pekingo Joko Olinpikoetako dominak eta ehunekoen zerrenda
3. taula: Atenaseko Joko Olinpikoetako dominak eta ehunekoen zerrenda
4. taula: Londreseko dominen irabazleak
5. taula: Pekingo dominen irabazleak
6. taula: Atenaseko dominen irabazleak
7. taula: Londres 2012 EEBB
8. taula: Londres 2012 Txina
9. taula: Londres 2012 Erresuma Batua
10. taula: Pekin 2008 Txina
11. taula: Pekin 2008 EEBB
12. taula: Pekin 2008 Errusia
13. taula: Atenas 2004 EEBB
14. taula: Atenas 2004 Txina
15. taula: Atenas 2004 Errusia
16. taula: Londres 2012ko atletismoko nazio garaileak
17. taula: Londres 2012ko ur kiroletako nazio garaileak
18. taula: Londres 2012ko txirrindularitzako nazio garaileak
19. taula: Pekin 2008ko atletismoko nazio garaileak
20. taula: Pekin 2008ko ur kiroletako nazio garaileak
21. taula: Pekin 2008ko txirrindularitzako nazio garaileak

22. taula: Atenas 2004ko atletismoko nazio garaileak
23. taula: Atenas 2004ko ur kiroletako nazio garaileak
24. taula Atenas 2004ko txirrindularitzako nazio garaileak
25. taula: Londres 2012ko Joko Olinpikoetako dominen irabazleak erlatiboki
26. taula: Pekin 2008ko Joko Olinpikoetako dominen irabazleak erlatiboki
27. taula: Atenas 2004ko Joko Olinpikoetako dominen irabazleak erlatiboki
28. taula: Londresen Espainiak lortutako dominak
29. taula: Londresen emankortasun handiena duten kiroletan Espainiak lortutako dominak
30. taula: Pekinen Espainiak lortutako dominak
31. taula: Pekinen emankortasun handiena duten kiroletan Espainiak lortutako dominak
32. taula: Atenasen Espainiak lortutako dominak
33. taula: Atenasen emankortasun handiena duten kiroletan Espainiak lortutako dominak
34. taula: Londreseko frogak abiadura eta iraupenean banatuta
35. taula: Pekingo frogak abiadura eta iraupenean banatuta
36. taula: Atenaseko frogak abiadura eta iraupenean banatuta
37. taula: Londreseko frogak bakarka eta taldeka banatuta
38. taula: Pekingo frogak bakarka eta taldeka banatuta
39. taula: Atenaseko frogak bakarka eta taldeka banatuta
40. taula: Kontsultatutako datu baseetan aurkitutako erreferentzien emaitzak
41. taula: Dialnet datu basean lortutako emaitzak
42. taula: MEDLINE datu basean lortutako emaitzak

43. taula: Pro Quest Central datu basean lortutako emaitzak
44. taula: EBSCO HOST datu basean lortutako emaitzak
45. taula: ScienceDirect datu basean lortutako emaitzak
46. taula: Datu baseetatik ateratako erreferentziak
47. taula: Giza baliabide mugatu eta mugagabeak
48. taula: Kirol errendimendua hobetzeko alor ezberdinetan hanpadura

IRUDIEN ZERRENDA

- 1.go irudia: Joko Olinpikoetako urrezko dominen banaketa
2. irudia: Londreseko Joko Olinpikoetako ehunekoen zerrenda
3. irudia: Pekineko Joko Olinpikoetako ehunekoen zerrenda
4. irudia: Atenaseko Joko Olinpikoetako ehunekoen zerrenda
5. irudia: talentuaren kontzeptua
6. irudia: Berezkoa edo erdietsitako interakzioaren argudioak
7. irudia: Talentuaren kontzeptuaren hurbilketa berria

LABURPENA

Azterlan honek kirol arrakasta handiena duten nazio adierazgarrienek, dominei dagokionez, emankortasun handiena duten kiroletan erabili ohi dituzten talentuen identifikazio programen errebisioa du helburu. Lortutako datuetatik aurrera, Atenas (2004), Pekin (2008) eta Londres (2012ko) Joko Olinpikoetako dominen zerrenda eta kirol diziplinen kuantifikazioa kontutan izan dira diziplina eta nazio arrakastatsuenak identifikatzeko. Jarraian, errebisio sistematiko tipiko baten pausoak jarritu dira: 1) Helburuen azalpena; 2) bilaketa bibliografikoa; 3) irakurketa kritikoa; 4) datun antolaketa; 5) idazlanare erredakzioa. Ondoren, errebisioan zehar atera ditugun ondorioak, aipatzen dira garrantzitsuenak hauek izanik: 1) emankortasun handiena duten kiroletan dominak eskuratzea oso garrantzitsua da dominen zerrendarako; 2) ez dago arrakasta ziurtatzen duen talentuen identifikazio sistematik; 3) Sistema tradizionalak gaitasun motorren abilezia bakarrik kontutan hartzen zuten; 4) Gaur egun “botton – up” ideia indartzen ari da; 5) entrenamenduen espezifikotasunarekin hasteko ez dago adin zehatzik; 6) transferentziari esker talentuak birziklatzeko aukera dago.

Hitz gakoak: Joko Olinpikoak, kirol talentua, talentuen identifikazioa, talentuen detekzioa, talentuen detekzio programak

SARRERA

“Joko Olinpikoetan garrantzitsuena ez da irabaztea parte hartzea baizik, bizitzan bezala, inportanteena borroka da eta ez garaipena. Funtsezkoa ez da irabaztea, ondo borrokatzea baizik”.

Honela aitortu zen Pierre de Coubertin aro berriko Joko Olinpikoen sorreran. Honek espiritu Olinpikoaren benetako hanpadura parte hartzean dagoela erakusten du. Hala ere, Joko Olinpikoak ospe eta parte hartze aldetik garrantzia irabazten joan diren heinean, dominak irabaztea oso garrantzitsua bilakatu da, baita sona nazionalaren aldetik ere. Hau *KOIk* (Komite Olinpiko Internazionalak) dominen zerrenda publikatzen hasi zenean gertatu zen (Čustonja, Z. eta Škorić, S, 2011)..

Joko Olinpikoetan pertsona konkretu batzuei laudorioak egitearen ideiarekin antzekotasunak eman dira; izan ere, mugimendu olinpikoaren arabera, Joko Olinpikoak atletak bakarka edota taldeka parte hartzen duten txapelketa bat dira eta ez nazioen arteko txapelketa. Nahiz eta *KOIk* adierazpen idealista hauek egin, dominen sailkapena nazioka egin ohi du eta une oro eguneratzen du Joko Olinpikoetan zehar zaleen interesa eta komunikabideen estaldura handiagoa izan dadin.

Nazio bati Joko Olinpikoak suposatzen dioten eskoramendu olinpikoa neurtzeko asmoz, ikerlari askok hauen inpaktu sozio – ekonomikoa, kulturala eta geografikoa ikertu dute. Era honetako ikerketak ez dira talentuak bilatzeko ezinbestekoak, baina talentu hori garatzeko faktore garrantzitsuenak bilatzea izan dute helburu.


Mugimendu Olinpikoak txapelketa internazionalen espiritua bultzatzen du, hots, kirol bikaintasuna. Hala eta guztiz ere, nazio guztiek ez dituzte Joko Olinpikoetan parte hartzeko aukera edo borondate antzekoa ezta dominak lortzeko aukera berdinek ere.

2010. urtean *KOIk* azaleratu zituen datu batzuen arabera, 204 herrialde ezberdinetako partaideak izan ziren Pekingo Joko Olinpikoetan. Dominen erdiak baino gehiago (% 56), eta urteen % 64, hamar lehenengoetan kokatu

ziren herrialdeek irabazi zituzten. Parte hartu zuten herrialdeen % 57ak ez zuen dominarik lortu eta lau herrialdeetatik batek soilik lortu zuen urrezko dominaren bat (52 herrialdek).

Hala eta guztiz ere, azpimarratu beharra dago azkeneko urteetan, gero eta gehiago direla dominaren bat irabaztea lortzen duten herrialdeak. Seul 1988an 5 nazio garrantzitsuenek urrezko dominen % 64 lortu zutenetik hona, Joko Olinpikoak konpetitiboagoak bilakatu dira, eta Atenas 2004an datu hau % 42raino jaitsi zen. Hortaz, Seul 1988an, 31 herrialde ezberdinek lortu zuten urrezko dominaren bat eta Atenas 2004an 56 herrialdek eskuratu zuten urrezko dominaren bat. Aldaketa honen eragileetako bat, Europaren erdialde eta ekialdean zegoen sistema komunistaren erorketaren ondorio izan da. Atenasen 56 herrialde hauetatik 7, 1990 baino beranduago sortutako estatuak izan ziren.

1.irudia: Joko Olinpikoetako urrezko dominen banaketa (Čustonja, Z. eta Škorić, S, 2011)



Beraz, zeintzuk dira nazio batentzako hain garrantzitsua den dominen zerrendan arrakasta izatera bultzatzen dituzten faktoreak?

Domina bat irabazteko kirolariak mundu mailako biztanleriaren artean banatuta egongo balira, herrialde horren biztanleriaren tamainarekin lotuta egon beharko zela suposatu beharko genuke. Hala ere, behin baino gehiagotan frogatu den bezala, hau ez da horrela ematen. Ikerketa gehientsuenek aldagai ekonomikoa, soziologikoa, Barne Aldagai Gordina (BAG) eta per capita BAG kontutan hartzen dituzte.

Joko Olinpikoetako arrakasta ikertu zen lehenengo aldia 1952an Helsinkin ospatu ziren Joko Olinpikoen ondoren izan zen. Joko Olinpikoen arrakasta neurtzeko BAG eta per capita BAG erabiltzen zen lehenengo ikerketa izan zen. Orduz geroztik, asko dira arrakasta neurtzeko aldagai hauek erabiltzen dituztenak. . (Čustonja, Z. eta Škorić, S, 2011).

Biztanleriaren tamainak, talentuen tamaina ere zehazten du, baina India, Bangladesh, Tailandia, Brasil, Indonesia, Nigeria, Pakistan edo Iran bezalako nazioek garbi erakusten dute nahiz eta biztanleria handiko herriak izan, Joko Olinpikoetako arrakasta tasa oso baxua dutela. Hala ere, honelako ikerketetan Barne Produktu Gordina aldagai ekonomikoarekin konbinatuz dira erabilienak.

Barne Produktu Gordinaz gain, beste ebidentzia batzuk badaude jarduera olinpikoaren arrakasta neurtzeko. Hauen artean herrialde anfitrioi izatea eta sistema politikoak aurkitzen dira.

Joko Olinpikoak duten garrantziak duen goranzko bilakaera aztertu ondoren, talentuen identifikazio programak aipatzea komeni da. Izan ere, talentuen identifikazio programak talentudun haurrak identifikatzeko eta etorkizunean arrakasta izateko erabili ohi dira. Eliteko kirolarentzat honelako programak oso baliagarriak izan daitezke haurrak kirol hori praktikatzeko aukera handiagoa izan dezaketelako. Gainera, kirola, talentuak eta lehentasun pertsonalen konexio hobezin bati esker eskola desertzioa murriztu daiteke (Faber, Oostervel eta Van der Sanden, 2011).

Literaturan arrakasta lortzeko kirolean erabakigarriak izan daitezkeen faktoreen iradokizuna egiten da eta hauek talentuen identifikazio programetan erabili behar direla aipatzen da. Eredu hauek, “antropometria”, “gaitasun motorrak”, “gaitasun fisikoak” eta “testuinguru faktoreak” lantzea gomendatzen dute (Faber, Oostervel eta Van der Sanden, 2011).

JUSTIFIKAZIOA

Zientzia lanera atxiki den metodo bat bezala definitzen du *UNESCO*k artikulu zientifikoa. Hauen jomuga, ikerketen emaitzak, ideiak eta eztabaidak era argi eta fidagarri batean azaltzea da. Era berean, gai konkretu baten gainean egindako ikerketak, publikaturik dagoen informazioa aztertu eta eztabaidatzen dute. Horregatik, bigarren edota hirugarren mailako argitaratzeak bezala sailkatu daitezke (Cué, Díaz Alonso, Díaz Martínez eta Valdés, 1996).

Hala eta guztiz ere, zenbait autorek errebisio sistematikoa gai konkretu baten inguruan dauden ikerketa nabarmenenak identifikatuz eta hauen kalitatea aintzat hartuz metodologia zientifikoa erabiliz emaitzak sintetizatzean datzan ikerketa artikulu bat dela diote. Beste era batera esanda, liburutegi batean eta ez laborategi edota asistentzia unitate batean egiten den ikerketa edo lan originala da errebisio artikulua. Ezberdintasunik nabarmenena jasotzen den informazio mota eta analisi unitatea dira eta ez aplikatzen diren printzipio zientifikoak.

Argitaratze zientifikoaren zenbakia igo den heinean, literaturan aurki ditzakegun errebisio artikulua oso garrantzitsuak bilakatu dira. Erabilerraztasunaren eta aldizkari zenbaki handiaren ondorioz, ikerlari eta espezialistei argitaratu den informazio guztia irakurtzeko astirik ez izatea ekarri du honek. Hori dela eta, profesionalak arlo konkretu batean azken jakintza eta joerekin eguneratuta egon daitezen, errebisioak konponbide bat dira. Era honetan zenbait autorek zenbait artikuluro informazio guztia finkatuko duen errebisio bat egotea beharrezkotzat jotzen dute eta horrela, gaiari buruz erantzun garbi eta eguneratu bat eman dezakete (Cué et al. 1996).

Lehen errebisio artikulua errebisio "narratibo edo kualitatiboak" ziren, non artikulu zenbaki bat hautatu ondoren, emaitzen arabera sailkatzen ziren eta azterketaren ondoren, ondorio nahiko orokor bat ateratzen zen (Guirao – Goris, Olmedo eta Ferrer, 2008). Narrazio honek kasu askotan emaitzen kuantifikazio simple bat edukitzen zuen, ikerketen emaitza positibo eta negatiboak zenbatzera mugatuz. "Botoen bidezko" errebisio sistema hau oso kritikatu izan

da irakurleari oso informazio gutxi eskaintzen diolako. Hau kontutan izanik, errebisio artikuluen hainbat sailkapen aurki genitzake:

- Aplikatutako guztiaren errebisio exhaustiboa
- Etengabeko garapenean dagoen gai bati buruz irakurleari kontzeptu baliagarriak ematen dizkion errebisio deskriptiboa
- Oso galdera konkretu bati erantzuten dion errebisio ebaluatzailea, hau da, galdera klinikoetan oinarritutako ebidentzia zientifikoak.

Lan honetan emankortasun handiena duten diziplina olinpikoetako talentu hautemate prozesuan erabiltzen diren programen errebisioa egingo da. Hortaz, lan honetan bilaketa bibliografiko bat egingo da, non gure gaiari buruz argitaratu den informazioa jaso, aztertu eta laburbilduko den.

Metaanalisiaren sorkuntzaz geroztik, “errebisio sistematikoaren” eta “metaanalisiaren” artean nahaste bat dago. Metaanalisia ikerketa ezberdinen ondorioak laburbildu eta estimazio orokor bat lortzeko asmoz, emaitzak konbinatzen dituen teknika estatistikoa da.

Errebisio sistematikoaren terminoa prozesu osoa azaltzeko erabiliko dugu eta metaanalisia, aldiz, emaitza ezberdinak konbinatzen dituen teknika estatistikoa azaltzeko erabiliko dugu.

Zergatik dira garrantzitsuak errebisio sistematikoak?

Errebisio tradizionalak edo narratibo bat aditu baten estimazio subjektiboa da, izan ere, bere ondorioa sostengatuko duen ikerketak biltzen saiatuko baita. Errebisio sistematikoak, aldiz, ikerketen identifikazio eta ebaluazioan sistematikoa izaten, interpretazioan objektiboa eta ondorioetan erreproduktiboa izaten ahalegintzen da. Zenbait autorek frogatu dute hainbat ikerketen emaitzen bilketak, ondorio goiztiaragoetara eta baliagarriagoetara hel daitekeela.

AURREKARIAK

Dokumentu bibliografikoa aurkitzeko asmoz, hainbat iturri dokumental erabili dira. 2015eko martxoa eta maiatza bitartean, bilaketa bibliografiko bat egin zen. *Joko Olinpikoak, dominak, kirol arrakastatsuenak eta nazio adierazgarrienak* deskriptoreak erabili ziren eta “google akademikoan” ere bilaketa hau errepikatu zen.

Joko Olinpikoetako diziplinarik arrakastatsuenak, dominen zenbakia eta nazio arrakastatsuenak kontutan hartzen zituen dokumentu eta taula guztiak hautatu ziren.

Informazio hau bildu ostean, errebisio artikularen helburuak zehaztu genituen:

- Gaiaren informazioa laburtu
- Behatutako gaiaren alderdi ezagunak, ezezagunak eta eztabaidagarriak identifikatu
- Gaiaren inguruan dauden hurbiltze teorikoak identifikatu
- Ikertutako gaiaren hurbilketa metodologikoak ezagutu
- Gai konkretu bati buruz informazio zabal bat eman
- Lehenengo mailako dokumentuen irakurketan denbora eta esfortzua aurreztu
- Irakurleari komunikazio, eskola edota protokoloak prestatzen lagundu
- Erabiltzeko moduan dauden ebidentziak erakutsi
- Galdera berriei erantzuna eman
- Etorkizuneko gaiak edota alderdiak iradoki

Garapena

Errebisio artikularen elaborazio etapak

Ikuspuntu kontzeptual batetik begiraturaz gero, errebisio artikulua, artikuluzientifikotzat jo dezakegu. Errebisio artikulua jatorrizko artikuluekin antzekotasun handiak ditu. Sarrera, jatorrizko artikulua baino askoz ere luzeagoa izango da, metodoen atalaren oinarria bilaketaren estrategiak osatuko

du eta artikularen aukeraketa irizpideak ere izango ditu. Eraitza eta eztabaidaren atalean, izaera kualitatiboa duten artikulua originaletan gertatzen den bezala, era batera idatziko dira eta artikularen oinarritzko funtsak osatuko dituzte. Errebisio artikulua, azken arlo bat izango du, non analisi bibliografikoaren ondoren ateratako ondorioak agertuko diren (Guirao – Goris, Olmedo eta Ferrer, 2008).

Icart eta Canelak (1994an), errebisio artikulua batek jarraitu beharreko etapen hurbilketa bat egiten du eta 4 etapetan banatzen du planteamendu hau:

1- Errebisioaren helburuak definitu:

Lehenengo etapen gure helburuak finkatu eta horren arabera errebisio deskriptiboa egitea aukeratu dugu. Gure buruari egin dizkiogun galderak honako hauek izan dira zer dakigu gai honi buruz?. Zein ezaugarri dute erasandako subjektuak?

2- Bilaketa bibliografikoa

a) Iturri dokumentala eta datu baseen aukeraketa

Errebisio artikulua bat egiteko literaturaren bilaketa hainbat iturri ezberdinetatik egin daiteke. Dokumentu motak sailkatzeko asmoz, gure bilaketa bibliografikoa honela sailkatu dugu:

- Lehenengo mailakoak: Originalak, informazio zuzena transmititzen digutenak (artikulu originalak).
- Bigarren mailakoak: Lehenengo mailako deskripzioak eskaintzen dizkigute (katalogoak, datu baseak, errebisio sistematikoak, laburpenak).
- Hirugarren mailakoak: Lehenengo mailako eta bigarren mailako dokumentuak laburtzen dituzte.

Ikerketa zientifikoak sortzen duten izugarritzko kantitatearen ondorioz, osasunen zientzietan oinarritutako aldizkarien sorkuntza ekarri du. Gauzak horrela, ikertzaileak informazioa eskuragarri izateko asmoz, datu base automatizatuak martxan jarri zituzten (Guirao – Goris, Olmedo eta Ferrer, 2008).

Datu baseak internet bidez errekuperatu daitezkeen bigarren mailako iturriak dira. Bertan, alor guztiak betetzen dituen informazio guztia, erregistro edo erreferentzia bibliografikoetan aurkitzen da (titulua, egileak, laburpena, idazlana eta ondorioak).

Gure kasuan, hauek izan dira erabilitako datu baseak: maila nazionalean kontsultatu ditugunak *Dialnet eta e – Revistas izan dira*; maila internazionalen, berriz, *MEDLINE, Pro Quest Central, Science Direct, eta EBSCO Host*.

b) Bilaketa estrategikoa

Datu baseak hautatu ondoren, hitz gakoak hautatu ditugu. Hitz gakoak gure gaiaren oinarrizko kontzeptuak edo aldagaiak izan dira eta gure bilaketa hasteko gakoak izan dira.

Datu base bakoitzean hitz gako bakoitzaren bilaketa bakarka eginez hasi gara.

Bilaketarekin amaitu ondoren, gure bilaketa estrategia zein izan den aipatu dugu. Horretarako, bilaketarako zein termino, zein data base erabili ditugun, zein estrategia erabili dugun, aurkitutako artikuluko kopurua, aurkitutako artikuluko horiek zein urteetakoak diren, eta hauen ehunekoa zenbatekoa den zehaztu dugu.

c) Aukeraketa irizpidea

Irizpide aukeraketa errebisioaren helburuen arabera zehaztua egongo da, artikuluari erantzuten saiatzen dena, alegia. Artikuluen hautaketa zehazten duen beste aspektu bat metodologiaren kalitatea eta hauek kalitate irizpideak betetzen dituzten ala ez izango da. Lehenengo fase batean, tituluak, egileak, laburpena eta emaitzak hartu behar dira kontutan.

CASPe programak (2005ean), irakurketa kritikoa, gure irakurketaren efektibotasuna, baliagarriak ez diren artikuluko zientifikoak ahalik eta azkarren baztertzeko eta baliagarriak diren horien bitartez hobetzeko aukera eskaintzen digun teknika bezala definitzen du.

3- Informazioaren antolaketa

Ikerketa artikuluetan gertatzen ez den bezala, errebisio artikuluetan ez dago antolaketaren jarraibide konkreturik. Hortaz, egile bakoitzak bere antolaketa propioa erabiliko du. Honelako idazlanetan oinarrizko erregela aldeztu aurretik gidoi bat egitea da. Gidoi horrek egitura logiko bat izango du eta lana ondo antolatzeko aukera emango digu.

Datuen egituratze prozesu honetan, mapa kontzeptual baten errealizazio batera jo dezakegu. Mapa kontzeptual batek hainbat eraikitzaile hartzen ditu kontutan. Orokortasunen maila ezberdinetan banatzen den hierarkia bat irudikatzen du eta kontzeptu, proposamen eta lotura hitzez osatzen da (Novak eta Gowin, 1988, Guirao – Goris, Olmedo eta Ferrer, 2008an aipatua). Mapa kontzeptualak kontzeptuen erlazioaren irudikapen grafiko eta arina bezala ulertzen dira. Jakintza (idea eta elkarteak) era grafiko eta sintetiko batean adierazteko erreminta kognitiboa da eta ikaskuntza efiziente eta adierazgarriantz bideratua dago (Martin Rodriguez et al. 2006, Guirao – Goris, Olmedo eta Ferrer, 2008 aipatua).

4- Lanaren idazlana:

Idaztea, bilatutako informazioa orden batean jartzean datza; zehatzago esanda, pentsamendu edota aldeztu aurretik edukitako jakintzak era zehatz batean adieraztea. (Guirao – Goris, Olmedo eta Ferrer, 2008).

Lehenengo ezaugarria kalitatea izango da. Bigarrena, laburtasuna eta hau, nahi den hori adierazteko beharrezkoak diren hitzak soilik erabiltzen direnean gertatzen da. Hirugarrena, zehaztasuna eta azkenik, xumetasun eta naturaltasuna izango dira.

Erredakzio on baten oinarrizko elementua prozesu logiko bat jarraituz informazioa hornitzea da. Era honetan lehenik eta behin garrantzitsuak diren ideiak azalduko ditugu eta gero hauek garatuko ditugu.

Gure lanaren egiturari dagokionez, lehendabizi titulua aurkitzen da, ondoren, gure gairantz bideratuko gaituen sarrera bat, non gure gaiari buruzko galdera planteatzen den. Jarraian, justifikazioa eta aurrekariak ditugu. Hemen,

gure lanaren metodologia azaltzen da, zein irizpide erabili ditugun eta zein artikulu erabili diren aipatzen da. Idazlanaren garapenean, errebisatutako artikuluen detaile azpimarragarrienak aurkitzen dira eta amaitzeko, errebisioan zehar atera ditugun ondorioak, etorkizuneko hipotesi berriak eta ikerketa lerroak proposatzen ditugu.

HELBURUAK

Arlo honetan gure ikerketaren ikuspegi metodologikoa osatzen duten alderdiak azalduko ditugu eta alderdi hauek, gure helburuak deskribatuko dituzte (orokorrak eta espezifikoak).

Gure errebisioa aurrera eraman ahal izateko eta talentuen hautemateari buruz errealitatea hobe deskribatu, ulertu eta ezagutzeko asmoz, lehenik eta behin, ikerketa deskribatzaile bat egin dugu gaian kokatzeko.

Hortaz, gure lanak honako helburu hauek izan ditu.

Helburu orokorrak:

- 1- Errebisio honen helburu nagusia **emankortasun handiena duten diziplina olinpikoetako talentu hautemate prozesuan erabiltzen diren programen errebisioa** izan da. Beraz, emankortasun handiena duten diziplina olinpikoak zehaztu ditugu lehenik eta behin.
- 2- Naziorik arrakastatsuenetan talentuen identifikazioaren programa olinpikoei buruz “artearen egoera” kontutan izan dugu, hots, gai honi buruz zer dagoen idatzita ikuskatu dugu. Arlo honen errebisio sistematikoa ere egin dugu.

Helburu espezifikoak:

- 1- Nazio hauen talentuen identifikazioari buruzko Programa Olinpikoak alderatu ditugu. Gure lana finkatzeko asmoz, azkeneko 3 Joko Olinpikoetara mugatzea erabaki dugu, hau da, Atenas 2004, Pekin 2008 eta Londres 2012ko Joko Olinpikoetan.
- 2- Datuak aztertu ondoren, azken hiru Joko Olinpikoetan domina kopururik handiena banatzen duten diziplina olinpikoak identifikatu ditugu eta hurrengo kasuetan bereiztu ditugu: a) guztira; b) nazio garaileen dominak aukeratutako kirolean; c) kirol bakoitzean arrakasta duten kirolak; d) dominen irabazleen sailkapena biztanleria kontutan izanik; e) Espainiaren kasua; f) abiadura eta iraupeneko probak eta g) bakarkako eta taldekako probak.

3- Naziorik arrakastatsuenetan talentuen hautemateari buruzko Programa Olinpikoen errebisio sistematiko baten aldiak betetze ditugu:

- a. Helburuak
- b. Bilaketa bibliografikoa:
 - i. Iturri dokumentalak
 - ii. Datu-baseak aukeratzea
 - iii. Bilaketa-estrategia
 - iv. Aukeraketa irizpideak
- c. Irakurketa kritikoa
- d. Datu-antolaketa eta egitura:
 - i. Mapa kontzeptualak
- e. Txostena idaztea

JOKO OLINPIKOAK

1. Sarrera

Mundu osoko partaideak hartzen dituen kirol gertakizun internazional multidiziplinarrak dira Joko Olinpikoak. 200 nazio baino gehiagok parte hartzen duen gertakizun honek, mundu osoan zehar ospatzen den txapelketarik garrantzitsuena bilakatzen du.

K.a. VIII. mendean Olinpiako hirian ospatzen ziren jokoetan inspiraturik, antzinan antolatzen ziren jokoan antzeko gertakizun bat sortzeko ideia otu zitzairen. Ideia hau Pierre de Coubertin baroiak egindako kudeaketari esker gauzatzea lortu zuten. Berak sortu zuen Komite Internazional Olinpikoa (KOI) 1894an. Orduz geroztik, bere egitura eta autoritatea definitzen duen Eskutitz Olinpikoari esker, KOI izan da “mugimendu olinpikoaren” organo koordinatzailea.

Era modernoko lehenengo Joko Olinpikoak Grezian ospatu ziren Atenas hirian 1896. urtean. Orduz geroztik, 4 urtez behin ospatu dira munduko hainbat hiritan, 1916, 1940, 1944 urteetan izan ezik Lehen eta Bigarren Mundu Gerraren eztanda dela eta.

KOI aurrerapen ekonomiko, politiko eta teknologiko ugarira egokitu behar izan da. Honen ondorioz, Joko Olinpikoak amateurismotik aldendu egin behar izan dira atleta profesionali leku emateko.


Hau guztia kontutan izanik, Londreseko Joko Olinpikoetan 26 kirol, 20 diziplina edo modalitate eta 312 proba ezberdinek osatu zuten programa olinpikoa.

1, 2 eta 3 tauletan azkeneko hiru Joko Olinpikoetan izan ziren kirolen zerrenda eta kirol bakoitzean banatu ziren dominen zerrenda ikus daiteke. 2, 3 eta 4 irudietan, berriz, Joko Olinpikoetan dominen zerrenden grafikoak ikus ditzakegu.

1. taula: Londreseko Joko Olinpikoetako dominak eta ehunekoak zerrenda. Iturria: <http://www.olympic.org/london-2012-summer-olympics>

Modalitatea	Dominak	Dominen ehunekoak
Atletismoa	47	15,06
Ur kirolak	46	14,74
Txirrindularitza	28	8,97
Borroka kirolak	18	5,76
Gimnasia	18	5,76
Piraguismoa	16	5,12
Halterofilia	15	4,80
Plater tiroa	15	4,80
Judoa	14	4,48
Arrauna	14	4,48
Boxeoa	13	4,16
Esgrima	10	3,20
Bela	10	3,20
Taekwondo	8	2,56
Hipika	6	1,92
Badmintona	5	1,60
Tenisa	5	1,60
Mahai tenisa	4	1,28
Arku tiroa	4	1,28
Boleibola	4	1,28
Saskibaloia	2	0,64
Eskubaloia	2	0,64
Futbola	2	0,64
Belar hockeya	2	0,64
Pentatloi modernoa	2	0,64
Triatloia	2	0,64
GUZTIRA	312	100


2. irudia: Londreseko Joko Olinpikoen ehuneko zerrenda. Iturria: <http://www.olympic.org/london-2012-summer-olympics>



2. taula: Pekingo Joko Olinpikoetako dominak eta ehunekoen zerrenda. Iturria:
<http://www.olympic.org/london-2012-summer-olympics>

Modalitatea	Dominak	Dominen ehunekoa
Atletismoa	47	15,11
Ur kirolak	46	14,79
Txirrindularitza	28	9
Borroka kirolak	18	5,78
Gimnasia	18	5,78
Piraguismoa	16	5,14
Halterofilia	15	4,82
Plater tiroa	15	4,82
Judoa	14	4,5
Arrauna	14	4,5
Boxeoa	11	3,53
Bela	10	3,21
Esgrima	10	3,21
Taekwondo	8	2,57
Hipika	6	1,92
Badmintona	5	1,60
Tenisa	4	1,28
Mahai tenisa	4	1,28
Arku tiroa	4	1,28
Boleibola	4	1,28
Saskibaloia	2	0,64
Eskubaloia	2	0,64
Futbola	2	0,64
Belar hockeya	2	0,64
Pentatloi modernoa	2	0,64
Triatloia	2	0,64
Beisbola	1	0,32
Sofbola	1	0,32
GUZTIRA	311	100


3. irudia : Pekingo Joko Olinpikoen ehunekoen zerrenda. Iturria: <http://www.olympic.org/london-2012-summer-olympics>



3.. taula: Atenaseko Joko Olinpikoetako dominak eta ehunekoen zerrenda. Iturria:
<http://www.olympic.org/london-2012-summer-olympics>

Modalitatea	Dominak	Dominen ehunekoa
Atletismoa	47	15,11
Ur kirolak	44	14,52
Txirrindularitza	28	9
Borroka kirolak	18	5,78
Gimnasia	18	5,78
Plater tiroa	17	5,46
Piraguismoa	16	5,14
Halterofilia	15	4,82
Judoa	14	4,5
Arrauna	14	4,5
Boxeoa	11	3,53
Bela	10	3,21
Esgrima	10	3,21
Taekwondo	8	2,57
Hipika	6	1,92
Badminton	5	1,60
Tenisa	4	1,28
Mahai tenisa	4	1,28
Arku tiroa	4	1,28
Boleibola	4	1,28
Saskibaloia	2	0,64
Eskubaloia	2	0,64
Futbola	2	0,64
Belar hockeya	2	0,64
Pentatloi modernoa	2	0,64
Triatloia	2	0,64
Beisbol	1	0,32
Sofbola	1	0,32
GUZTIRA	311	100

4. irudia Atenaseko Joko Olinpikoetako ehunekoen zerrenda. Iturria: <http://www.olympic.org/london-2012-summer-olympics>



Taula hauetan argi ikusten da dominei dagokienez Joko Olinpikoetan kirol bakoitzak duen garrantzia. Bistakoa da, atletismoa, ur kirolak eta txirrindularitza 3 kirol erregeak direla, izan ere, hiru kirolen artean Londresen 121 proba ospatzen dira. Beste era batera esanda urrezko 121 domina banatzen dira eta domina guztien % 38,77 suposatzen dute. Pekinen eta Atenasen, berriz, 119 urrezko domina banatu ziren eta domina guztien % 38,9 suposatu zuten.




3 kirolen artean dominen ia %40a suposatzen dutenez, beraien garrantzia nabarmena dela ikus daiteke; hortaz, lan honetan hiru kirol hauetan zentratuko gara.

2- Azkeneko 3 Joko Olinpikoetako dominen irabazleen estatistikak




Joko Olinpikoetan zehar banatzen diren dominen arabera nazioentzako oso garrantzitsua bihurtu den zerrenda bat osatzen da. Bertan domina guztiak zenbatzeaz gain urre kopurua ere kontutan hartzen da.

4,5 eta 6. tauletan, Londres 2012, Pekin 2008 eta Atenas 2004ko Joko Olinpikoen dominen irabazleen sailkapeneko lehenengo hiru nazioak ageri dira.




4.. taula: Londreseko dominen irabazleak. Iturria: <http://www.olympic.org/london-2012-summer-olympics>)

Nazioa				Guztira
EEBB	46	29	29	104
Txina	38	27	23	88
Erresuma Batua	29	17	19	65

5.. taula: Pekingo dominen irabazleak. Iturria: <http://www.olympic.org/london-2012-summer-olympics>

Nazioa				Guztira
Txina	51	21	28	100
EEBB	36	38	36	110
Errusia	23	21	29	73

6. taula: Atenaseko dominen irabazleak. Iturria: <http://www.olympic.org/london-2012-summer-olympics>

Nazioa				Guztira
EEBB	36	39	26	101
Txina	32	17	14	63
Errusia	27	27	38	92




Taula hauetan garbi ikus daiteke mundu mailan gailentzen diren potentziak urtero errepikatzen direla. Londreseko Joko Olinpikoetan Erresuma Batuak Errusiari irabazi zion zerrendan, baina Txina eta Estatu Batuak nabarmen gailentzen dira 3 Jokoetan.

3- Nazio garaileen dominak aukeratutako 3 kiroletan




Londreseko zerrendako 3 herrialde nagusiak kontutan hartuz gero, azken hiru Joko Olinpikoak ikertuko ditugu eta lan honetarako hautatu ditugun hiru kiroletan izan duten arrakasta aztertu dugu.

Jarraian, 7,8 eta 9. Taulak agertzen dira. Bertan Londreseko nazio garaileek aukeratutako hiru kiroletan lortu zituzten dominak agertzen dira.




7. taula: Londres 2012 Estatu Batuak. Iturria: <http://www.olympic.org/london-2012-summer-olympics>

EEBB				Guztira	Ehunekoa
Atletismoa	9	13	7	29	27,88
Txirrindularitza	1	2	1	4	3,84
Ur kirolak	16	9	6	31	29,80
GUZTIRA	26	24	14	64	61,53

8. taula: Londres 2012 Txina. Iturria: <http://www.olympic.org/london-2012-summer-olympics>

Txina				Guztira	Ehunekoa
Atletismoa	1	0	5	6	6,81
Txirrindularitza	0	2	1	3	3,4
Ur kirolak	11	6	5	22	25
GUZTIRA	12	8	11	31	35,22

9. taula: Londres 2012 Erresuma Batuak. Iturria: <http://www.olympic.org/london-2012-summer-olympics>

Erresuma Batua				Guztira	Ehunekoa
Atletismoa	4	1	1	6	9,23
Txirrindularitza	8	2	2	12	18,46
Ur kirolak	0	1	3	4	6,15
GUZTIRA	12	4	6	22	33,84

Estatu Batuen kasuan, ur kirolak Estatu Batuek Londreseko Joko Olinpikoetan lortu zituzten domina guztien % 29,80 osatzen dute eta atletismoak, berriz, % 27,88. Txirrindularitzan lortutako dominek %3 soilik suposatzen dute. Hala eta guztiz ere, hiru kirol hauen artean domina guztien bi heren osatzen dute, % 61, 53, alegia.




Txinan hautatako hiru kirolen azterketa egin ondoren, ur kirolak garrantzia gehien duen diziplina dela ikus dezakegu domina guztien % 25 suposatuz. Atletismoak % 6,81 eta txirrindularitzak % 3,4 osatzen dute, guztira % 35,22 suposatuz.

Erresuma Batuen taulari erreparatuz gero, garbi ikusten da txirrindularitzak duela garrantzia handiena domina guztien % 18, 46arekin. Atletismoak % 9, 23 eta ur kirolek % 6,15 osatzen dute eta guztira % 33,84 osatzen dute.




Laburbilduz, taula hauetan argi ikusten da hiru herrialde hauek oso kontutan hartzen dituztela 3 kirol hauek beraien domina guztien ehuneko kopuru oso handi bat suposatzen baitute.

Jarraian, 10, 11 eta 12. tauletan Pekingo Joko Olinpikoen irabazleek hautatuko hiru kirolean izan zuten eragina aztertuko da.




10.taula: Pekin 2008: Txina. Iturria: <http://www.olympic.org/london-2012-summer-olympics>

Txina				Guztira	Ehunekoa
Atletismoa	0	0	2	2	2
Txirrindularitza	0	0	1	1	1
Ur kirolak	8	4	6	18	18
GUZTIRA	8	4	9	21	21

11. taula: Pekin 2008: Estatu Batuak. Iturria: <http://www.olympic.org/london-2012-summer-olympics>

EEBB				Guztira	Ehunekoa
Atletismoa	6	9	9	24	21,81
Txirrindularitza	1	1	2	4	3,63
Ur kirolak	12	9	10	31	28,18
GUZTIRA	19	19	21	59	53,63

12. taula: Pekin 2008: Errusia. Iturria: <http://www.olympic.org/london-2012-summer-olympics>

Errusia				Guztira	Ehunekoa
Atletismoa	6	5	7	18	24,65
Txirrindularitza	0	0	3	3	4,1
Ur kirolak	3	4	4	11	15,06
GUZTIRA	9	9	14	32	43,83

Pekingo Joko Olinpikoetan Txinaren kasuan, ur kirolak izan ziren domina gehien suposatu zien diziplina %18 lortuz. Atletismoan % 2 eta txirrindularitzan %1 lortu zuten, guztira hiru diziplinen artean %21 suposatuz.




Estatu Batuen kasuan, berriz, atletismoak domina guztien %21,81 suposatu zien, txirrindularitzak % 3,63 eta amaitzeko, ur kirolak, %28,18. Hiru kirol hauen artean domina guztien erdia baino gehiago lortu zuten, hots, %53,63.

Errusiaren kasuan atletismoak garrantzia gehien duen kirola dela ikus daiteke domina guztien % 24, 65 lortuz. Ur kirolak %15, 06 suposatzen die eta txirrindularitzak % 4,1 soilik. Hala ere, hiru kirol hauei esker Errusiak lortu zituen domina guztien ia erdia lortu zuten domina guztien % 43,83 lortuz.




Laburbilduz, Londreseko taulekin gertatzen zenaren antzera, hiru herrialde hauek garrantzia izugarria ematen die emankortasun handiena duten kirolei beraien dominen ehuneko oso handi bat suposatzen baitie.

Ondoren, 13, 14 eta 15. tauletan Atenaseko Joko Olinpikoen irabazleek hautatuko hiru kirolek izan zuten eragina aztertuko da.




13. taula: Atenas 2004 EEBB. Iturria: <http://www.olympic.org/london-2012-summer-olympics>

EEBB				Guztira	Ehunekoa
Atletismoa	8	12	5	25	24,75
Txirrindularitza	0	2	0	2	1,98
Ur kirolak	12	9	9	30	29,7
GUZTIRA	20	22	14	57	56,43

14. taula: Atenas 2004 Txina. Iturria: <http://www.olympic.org/london-2012-summer-olympics>

Txina				Guztira	Ehunekoa
Atletismoa	1	0	0	1	1,58
Txirrindularitza	0	0	0	0	0
Ur kirolak	7	1	0	8	12,69
GUZTIRA	8	1	0	9	14,28

15. taula: Atenas 2004 Errusia. Iturria: <http://www.olympic.org/london-2012-summer-olympics>

Errusia				Guztira	Ehunekoa
Atletismoa	6	7	7	20	21,73
Txirrindularitza	3	1	1	5	5,43
Ur kirolak	2	3	2	7	7,6
GUZTIRA	11	11	10	32	34,78

Atenaseko Joko Olinpikoen taulak aztertu ondoren, Estatu Batuetako datuetan ikus daiteke ur kirolak izugarriko garrantzia dutela lortutako domina guztien % 29,7 lortu baitzuten. Atletismoak % 24,75 suposatu zien eta txirrindularitzak % 1,98. Hiru kirolak batera hartuz gero, Atenaseko Joko Olinpikoetan Estatu Batuek lortu zuten domina guztien ia bi heren osatu zuten % 56,43 lortuz.

Txinaren taulari erreparatzen badiogu, kirolik garrantzitsuena ur kirolak izan zen domina guztien %12,69 suposatuz. Atletismoak urrezko domina batekin domina guztien %1,58 suposatu zien eta txirrindularitzan ez zuten dominarik irabaztea lortu.

Errusiaren kasuan, berriz, atletismoa izan zen kirolik nabarmenena domina guztien % 21,73arekin. Ondoren ur kirolak % 7,6 suposatu zien eta azkenik txirrindularitzak % 5,43 suposatu zien.

Laburbilduz, garbi ikusi da hiru kirol hauetan arrakasta izateak gero eta garrantzia handiagoa duela eta nazio arrakastatsuenek ere gero eta atentzio handiagoa jartzen dietela kirol hauetan arrakasta izateari.




4- Kirol bakoitzean arrakasta duten nazioak

Segidan, 16, 17 eta 18. tauletan orain arte azken 3 Joko Olinpikoetako nazio garaileak zeintzuk diren eta emankortasun handiena duten kiroletan izan duten arrakasta aztertu dugu.




16. taula: Londres 2012ko atletismoko nazio garaileak. Iturria: <http://www.olympic.org/olympic-results/london-2012/athletics>

Postua	Nazioa				Guztira
1	EEBB	9	12	7	28
2	Errusia	8	4	5	17
3	Jamaika	4	4	4	12
4	Erresuma Batua	4	1	1	6
5	Etiopia	3	1	3	7

17. taula: Londres 2012ko ur kiroletako nazio garaileak. Iturria: <http://www.olympic.org/olympic-results/london-2012/swimming>

Postua	Nazioa				Guztira
1	EEBB	18	10	7	35
2	Txina	11	5	4	20
3	Frantzia	4	2	1	7
4	Herbehereak	2	1	1	4
5	Hungaria	2	1	0	3
5	Australia	1	7	4	12

18. taula: Londres 2012ko txirrindularitzako nazio garaileak. Iturria: <http://www.olympic.org/olympic-results/london/cycling-track>

Postua	Nazioa				Guztira
1	Erresuma Batua	8	2	2	12
2	Alemania	1	4	1	6
3	Frantzia	1	3	0	4
4	Australia	1	3	0	4
5	EEBB	1	2	1	4

Londres 2012ko datuak arakatu ondoren, atletismoaren kasuan ikus daiteke Estatu Batuek sailkapen nagusian ere gailentzen direla. Erresuma

Batuak ere dominen zerrenda honetan laugarren postuan ageri dira eta Txina, berriz, ez da agertzen.



Ur Kirolen kasuan ere, Estatu Batuak sailkapen nagusiaren lehenengo postuan ikus ditzakegu. Txinak ere bigarren postua lortu du eta Erresuma Batua falta da zerrendan.

Txirrindularitzan, Erresuma Batuak da garailea eta bosgarren postuan ikus ditzakegu EEBB. Txina ez da sailkapen honetan lehenengo postuetan ageri.

Laburbilduz, kirol bakoitzeko nazio garaileen zerrenda aztertuta Estatu Batuak hiru zerrendatan ageri dira lehenengo bost nazioen artean. Txina eta Erresuma Batua, berriz, bi sailkapenetan ageri dira.

Jarraian 19, 20 eta 21. tauletan Pekin 2008an atletismoa, ur kirolak eta txirrindularitzako diziplinetan domina gehien irabazi zituzten nazioak ageri dira..




19. taula: Pekin 2008ko atletismoko nazio garaileak. Iturria: <http://www.olympic.org/olympic-results/beijing-2008/athletics>

Postua	Nazioa				Guztira
1	EEBB	7	9	7	23
2	Errusia	6	5	7	18
3	Jamaika	6	3	2	11
4	Kenia	5	5	4	14
5	Etiopia	4	1	2	7

20. taula: Pekin 2008ko ur kiroleko nazio garaileak. Iturria: <http://www.olympic.org/olympic-results/beijing-2008/swimming>

Postua	Nazioa				Guztira
1	EEBB	12	9	10	31
2	Txina	8	4	5	17
3	Australia	7	7	9	23
4	Errusia	3	4	4	11
5	Erresuma Batua	2	2	2	6

21. taula: Pekin 2008ko txirrindularitzako nazio garaileak. Iturria: <http://www.olympic.org/olympic-results/beijing-2008/cycling-track>

Postua	Nazioa				Guztira
1	Erresuma Batua	8	4	2	14
2	Frantzia	2	3	1	6
3	Espainia	2	1	1	4
4	EEBB	1	1	3	5
5	Suitza	1	1	2	4

Pekin 2008ko datuak aztertu ondoren, atletismoaren kasuan Estatu Batuak nazio garailea izan zirela. Errusiak bigarren postua lortu zuen eta Txina, berriz, ez da sailkapen honen lehenengo postuetan ageri.

Ur kirolen kasuan ikus daiteke Estatu Batuak, Txina eta Errusia, hots, dominen zerrenda absolutuko nazio garaileak, sailkapen honen lehenengo 4 postuetan agertzen direla.

Txirrindularitzaren kasuan, Estatu Batuak soilik ikus ditzakegu sailkapen honen lehenengo postuetan.




Laburbilduz, Londresen gertatu zenaren antzera, Estatu Batuak hiru zerrendetan ageri dira, baina Txina eta Errusia bi zerrendetan soilik ikus ditzakegu.

Ondoren, 22, 23 eta 24. taulak agertzen dira. Bertan, Atenas 2004an aukeratutako hiru kiroleko nazio garaileak agertzen dira.




22. taula: Atenas 2004ko atletismoko nazio garaileak. Iturria: <http://www.olympic.org/content/results-and-medalists/gamesandsportssummary/?sport=32588&games=2004%2f1&event=>

Postua	Nazioa				Guztira
1	EEBB	9	11	5	25
2	Errusia	6	7	7	20
3	Erresuma Batua	3	0	1	4
4	Suedia	3	0	0	3
5	Etiopia	2	3	2	7

23. taula: Atenas 2004ko ur kiroleko nazio garaileak. Iturria: <http://www.olympic.org/content/results-and-medalists/gamesandsportsummary/?sport=42422&games=2004%2F1&event=>

Postua	Nazioa				Guztira
1	EEBB	12	8	10	30
2	Australia	8	6	7	21
3	Txina	7	3	1	11
4	Japon	3	3	4	10
5	Errusia	2	3	2	7
5	Herbehereak	2	3	2	7

24. taula: Atenas 2004ko txirrindularitzako nazio garaileak. Iturria: <http://www.olympic.org/content/results-and-medalists/gamesandsportsummary/?sport=31500&games=2004%2F1&event=>

Postua	Nazioa				Guztira
1	Australia	6	2	2	10
2	Errusia	2	2	1	5
3	Erresuma Batua	2	1	1	4
4	Alemania	1	1	4	6
5	Herbehereak	1	1	2	4

Atenas 2004ko datuak aztertu ondoren, atletismoaren kasuan ikus dezakegu EEBB eta Errusia sailkapen nagusiko lehenengo bi postuetan ageri dira. Txina, berriz, ez da sailkapen honen lehenengo postuetan ageri.

Ur kirolen kasuan, EEBB, Txina eta Errusia sailkapen nagusiko bost nazioen artean ikus genitzake.

Amaitzeko, txirrindularitzaren kasuan, Errusia soilik agertzen da lehenengo bost nazio garaileen artean.

Laburbilduz, Londres eta Pekingo Joko Olinpikoetan gertatu ez zen bezala, Estatu Batuak ez dira hiru sailkapenetan ageri. Txina Londres eta Pekinen antzera atletismo eta ur kirolen zerrendetan ageri da eta Errusia hiru sailkapenetan ageri da.

5- Dominen irabazleen sailkapena biztanleria kontutan izanik

Ondoren ageriko diren tauletan, hots, 25, 26 eta 27. tauletan Londres, Pekin eta Atenaseko Joko Olinpikoetan nazio bakoitzeko biztanleriaren tamaina kontutan izanik, lortu zituzten urreak eta sailkapena agertuko da.

25. taula: Londres 2012ko Joko Olinpikoetako dominen irabazleak erlatiboki. Iturria: <http://www.medalspercapita.com/#medals:2012>

Postua	Nazioa	Urrezko dominak	Dominak totalak	Biztanleria	Urreak biztanle bakoitzeko
1	Granada	1	1	110.821	110.821
2	Bahamak	1	1	353.658	353.658
3	Jamaika	4	12	2.705.827	676.456
4	Zeelanda Berria	6	13	4.432.620	738.770
5	Hungaria	8	17	9.962.000	1.245.250

Taula honetan ikus daiteke Londreseko Joko Olinpikoetan biztanle bakoitzeko zenbat urre lortu dituen nazio bakoitzak. Sailkapen honetan garaile Granada izan zen 110.821 biztanlerekin urrezko domina bat irabaztea lortu baitzuten. Sailkapen honetan bigarrena Bahamak izan zen, Jamaika hirugarren, Zeelanda Berria laugarren eta Hungaria bosgarren.

26. taula: Pekin 2008ko Joko Olinpikoetako dominen irabazleak erlatiboki. Iturria: <http://www.medalspercapita.com/#medals:2008>

Postua	Nazioa	Urrezko dominak	Dominak totalak	Biztanleria	Urreak biztanle bakoitzeko
1	Jamaika	6	11	2.705.827	450.971
2	Bahrein	1	1	1.234.571	1.234.571
3	Estonia	1	2	1.318.005	1.318.005
4	Mongolia	2	4	2.736.800	1.368.400
5	Zeelanda Berria	3	9	4.432.620	1.477.540

Taula honetan Pekingo Joko Olinpikoetan biztanle bakoitzeko zenbat urre lortu dituen nazio bakoitzak agertzen da. Sailkapen honetan garaile Jamaika izan zen 2.705.827 biztanlerekin urrezko sei domina irabaztea lortu baitzuten, hau da, 450.971 biztanle bakoitzeko domina bat suposatzen die.

Sailkapen honetan bigarrena Bahrein izan zen, hirugarren Estonia, laugarren Mongolia eta bosgarren Zeelanda Berria.

27. taula: Atenas 2004ko Joko Olinpikoetako dominen irabazleak erlatiboki. Iturria: <http://www.medalspercapita.com/#golds-per-capita:2004>

Postua	Nazioa	Urrezko dominak	Dominak totalak	Biztanleria	Urreak biztanle bakoitzeko
1	Bahamak	1	2	311.981	311.981
2	Norvegia	5	6	4.586.170	917.234
3	Australia	17	49	20,091,834	1,181,872
4	Kuba	9	27	11,231,918	1,247,990
5	Hungaria	8	17	10,082,193	1,260,274




Taula honetan ikus daiteke Atenaseko Joko Olinpikoetan biztanle bakoitzeko zenbat urre lortu dituen nazio bakoitzak. Sailkapen honetan garaile Bahamak izan zen 311.981 biztanlerekin urrezko domina bat irabaztea lortu baitzuten. Sailkapen honetan bigarrena Bahamak izan zen, Jamaika hirugarren, Zeelanda Berria laugarren eta Hungaria bosgarren.




6- Espainiaren kasua

Segidan, 28 eta 29. Tauletan Espainiak Londreseko Joko Olinpikoetan lortutako dominen zerrenda eta aukeratutako hiru kiroleetan lortutako dominen zerrenda ikusten da.

28. taula: Londresen Espainiak lortutako dominak. Iturria:

<http://www.coe.es/web/EVENTOSHOMENsf/MONOGRAFICO2012?OpenForm&Query=Consulta=evento=Londres+2012@-@818=->

Kirola				Guztira
Bela	2	0	0	2
Borroka kirolak	0	0	1	1
Eskubaloia	0	0	1	1
Igeriketa	0	2	0	2
Igeriketa sinkronizatua	0	1	1	2
Piraguismoa	0	2	1	3
Saskibaloia	0	1	0	1
Taekwondo	1	2	0	3

Kirola				Guztira
Triatloia	0	1	0	1
Waterpolo	0	1	0	1
GUZTIRA	3	10	4	17




29. taula: Londresen emankortasun handiena duten kiroleetan Espainiak lortutako dominak. Iturria:
<http://www.coe.es/web/EVENTOSHOME.nsf/MONOGRAFICO2012?OpenForm&Query=Consulta=evento=Londres+2012@-@818=> =

Modalitatea	Kopurua	Ehunekoa
Atletismoa	0	0
Txirrindularitza	0	0
Ur kirolak	5	29,41
GUZTIRA	5	29,41

Taula hauetan ikus daiteke Espainiak Londreseko Joko Olinpikoetan lortu zituen dominak eta emankortasun handiena duten kiroleetan lortu zituen dominak. Guztira 18 domina lortu ziren. Ur kiroleetan 5 domina lortu zituzten eta honek domina guztien %29,41 suposatu zien, hots, domina guztien ia heren bat. Atletismoan eta txirrindularitzan, berriz, ez zuten dominarik lortu.

Hurrengo taulatan (30 eta 31. taulak) Espainiak Pekinen lortu zituen dominak eta aukeratutako hiru kiroleetan lortutako dominak azaltzen dira.

30. taula: Pekinen Espainiak lortu zituen dominak. Iturria:
<http://www.coe.es/web/EVENTOSHOME.nsf/MONOGRAFICO2012?OpenForm&Query=Consulta=evento=Pek%C3%ADn+2008@-@656=> =

Modalitatea				Guztira
Bela	1	1	0	2
Belar hockeya	0	1	0	1
Eskubaloia	0	0	1	1
Esgrima	0	0	1	1
Gimnasia	0	1	0	1
Igeriketa sinkronizatua	0	2	0	2
Piraguismoa	1	2	0	3
Saskibaloia	0	1	0	1
Tenisa	1	1	0	2
Txirrindularitza	2	1	1	4
GUZTIRA	5	10	3	18

31. taula: Pekinen emankortasun handiena duten kiroletan Espainiak lortutako dominak. Iturria:

<http://www.coe.es/web/EVENTOSHOME.nsf/MONOGRAFICO2012?OpenForm&Query=Consulta=evento=Pek%C3%ADn+2008@-@656=> =




Modalitatea	Kopurua	Ehunekoa
Atletismoa	0	0
Txirrindularitza	4	22,22
Ur kirolak	2	11,11
GUZTIRA	6	33,33

Taula hauetan ikus daiteke Espainiak Pekingo Joko Olinpikoetan lortu zituen dominak eta emankortasun handiena duten kiroletan lortutako emaitzak. Guztira 18 domina lortu ziren eta bertan, atletismoan dominarik lortu ez zuela ikusten da, txirrindularitzak, aldiz, domina guztien %22,22 eta ur kirolak % 11 lortu zuten.

32. eta 33. tauletan ikus dezakegun bezala, Atenasen Espainiak lortutako dominak eta aukeratutako kiroletan izandako arrakasta agertzen da.

32. taula: Atenasen Espainiak lortu zituen dominak. Iturria:

<http://www.coe.es/web/EVENTOSHOME.nsf/MONOGRAFICO2012?OpenForm&Query=Consulta=evento=Atenas+2004@-@604=> =

Modalitatea				Guztira
Atletismoa	0	1	2	3
Bela	1	2	0	3
Gimnasia	1	0	1	2
Hipika	0	1	1	2
Hondartzako boleibola	0	1	0	1
Piraguismoa	1	1	0	2
Plater tiroa	0	1	0	1
Tenisa	0	1	0	1
Txirrindularitza	0	3	2	5
GUZTIRA	3	11	6	20

33. taula: Atenasen emankortasun handiena duten kiroletan Espainiak lortutako dominak. Iturria:

<http://www.coe.es/web/EVENTOSHOME.nsf/MONOGRAFICO2012?OpenForm&Query=Consulta=evento=Atenas+2004@-@604=> =

Modalitatea	Kopurua	Ehunekoa
Atletismoa	3	15
Txirrindularitza	5	25
Ur kirolak	0	0
GUZTIRA	8	40

Taula hauetan Espainiak Atenaseko Joko Olinpikoetan lortu zituen dominak eta emankortasun handiena duten kirolean lortutako emaitzak ikuskatu daitezke. Guztira 20 domina lortu zituzten, atletismoak domina guztien % 15 lortuz, txirrindularitzak %25 eta ur kirolean, berriz, ez ziren dominarik lortu.

7- Diziplinak

Ur kirolak eta txirrindularitzak diziplina ugari dituztenez, domina gehien banatzen dituzten diziplinak hartuko ditugu aintzat. Hau guztia kontuan hartuta, atletismoaz gain igeriketa eta pistako txirrindularitza landuko ditugu jarrian.

a. Atletismoa:

Atletismoa lasterketak, jauziak, jaurtiketak, konbinatuak eta martxa deritzon diziplina ezberdinak biltzen dituen kirola da. Aurkariaren errendimendua abiaduran edo erresistentzian, distantzia edo altueran gainditzean datza.

Denborak aurrera egin duen heinean, bakarkako probak zein taldekakoak nabarmen aldatu dira. Hala ere, beste kirol askorekin alderatuz, mundu guztian zehar praktikatzen den kirola da, bai afizionatu mailan, baita maila konpetitiboan ere. Material eta teknologiari dagokionez, nahiko kirol "sinplea" denez, urtero milaka jarraitzaile atzematen ditu. Honek, atletismoa oso kirol herrikoia bihurtzen du.

1982. urtetik aurrera Atletismoko Federazio Internazionalaren Asoziazioak (IAAFek) arautzen eta erregulatzen du diziplina hau.

b. Igeriketa

Gorputzeko goi eta behe ataleko giharren mugimendu erritmiko, errepikatu eta koordinatuaren bitartez, propulsiio akzioari esker, ur azalera mantentzeko eta uraren erresistentziari irabaziz bertatik mugitzeko gizakiak duen gaitasuna da igeriketa.

Igeriketan maila konpetitiboan lau estilo ezberdin ezagutzen ditugu: Estilo libre edo krola, bular estiloa, bizkar estiloa eta tximeleta estiloa.

c. Pistako Txirrindularitza

Domina kopuruari dagokionez, pistako txirrindularitza da txirrindularitzaren diziplinarik garrantzitsuena. Belodromo baten barruan egiten dira proba hauek, errepideko bizikletarekin antzekotasuna baditu ere, badituzte bereizten dituzten zenbait gauza. Guztietan garrantzitsuena bizikletak frenorik ez duela da. Horretaz gain, pistako bizikletak pinoi finkoa du, hots, ez du kanbiorik. Beraz, oso garrantzitsua bilakatzen da lasterketaren hasieran norberak erabiliko duen garapenaren hautaketa gogorregia edo arinegia ez izateko. Pedalen ardatza ere ohiko bizikletak baino pixka bat altuagoa egon ohi da peralteetan pedalekin lurra ez ukitzeko.

Azkeneko urteetan proba olinpikoak aldaketa batzuk jasan badituzte ere, egun 5 proba ezberdin daude gizonezkoentzat zein emakumezkoentzat. Bakarkako abiadura, taldekako abiadura, keirina, taldekako jazarpena eta omnia dira Londreseko Joko Olinpikoak ezkeroztik proba olinpikoak. Aldaketa hau gizon eta emakumeen berdintasunaren alde egin zen, izan ere, Pekingo Joko Olinpikoetan 10 proba zeuden, baina 7 gizonezkoentzat ziren eta 3, berriz, emakumeentzat. Atenasen ere, gizon eta emakumeen artean desberdintasun nabarmena zegoen, izan ere, 12 proba izan ziren bertan, baina 8 gizonezkoentzat eta 4 emakumezkoentzat.

8- Abiadura eta iraupeneko probak

Lehenago aipatu bezala, lan honetan atletismoa, ur kirolak eta txirrindularitzan zentratu gara, baina bai txirrindularitzan zein ur kirolean diziplina ezberdinak daudenez, pistako txirrindularitza eta igeriketa jorratuko ditugu atletismoarekin batera hiru diziplinek abiadura zein iraupeneko probak baitituzte.

Jarraian ageriko diren tauletan (34, 35 eta 36. Tauleta), argi azaltzen dira zeintzuk diren abiadurako zein iraupeneko frogak.

34. Taula: Londreseko frogak abiadura eta iraupenean banatuta. Iturria: <http://www.olympic.org/london-2012-summer-olympics>

Kirola	Modalitatea	Proba	Abiadura	Iraupena		
Atletismoa	Lasterketak	100m	X			
		200m	X			
		400m	X			
		800m	X			
		1.500m			X	
		5.000m			X	
		10.000m			X	
		110m hesiak	X			
		100m hesiak	X			
		400m hesiak	X			
		4x100 erreleboak	X			
		4x400 erreleboak	X			
		3.000m oztopoak			X	
		Maratoia			X	
		Txirrindularitza	Pista	Bakarkako abiadura	X	
				Taldekako abiadura	X	
				Keirina	X	
Omniuma				X		
Ur kirolak	Igeriketa	Taldekako jazarpena		X		
		50m estilo librea	X			
		100m estilo librea	X			
		100m bizkar estiloa	X			
		100m bular estiloa	X			
		100m tximeleta	X			
		200m estilo librea	X			
		200m bizkar estiloa	X			
		200m bular estiloa	X			
		200m tximeleta	X			
		200m estiloak	X			
		400m estilo librea			X	
		800m estilo librea			X	
		1.500m estilo librea			X	
		4x100m estilo librea	X			
		4x100 estiloak	X			
		4x200 estilo librea	X			
GUZTIRA			25	10		

35. Taula: Pekingo frogak abiadura eta iraupenean banatuta. Iturria: <http://www.olympic.org/london-2012-summer-olympics>

Kirola	Modalitatea	Proba	Abiadura	Iraupena
Atletismoa	Lasterketak	100m	X	
		200m	X	
		400m	X	
		800m	X	

Kirola	Modalitatea	Proba	Abiadura	Iraupena
		1.500m		X
		5.000m		X
		10.000m		X
		110m hesiak	X	
		100m hesiak	X	
		400m hesiak	X	
		4x100m erreleboak	X	
		4x400m erreleboak	X	
		3.000m oztopoak		X
		Maratoia		X
Txirrindularitza	Pista	Bakarkako abiadura	X	
		Taldekako abiadura	X	
		Keirin	X	
		Bakarkako jazarpena		X
		Taldekako jazarpena		X
		Puntuazioa		X
		Madisona		X
Ur kirolak	Igeriketa	50m estilo librea	X	
		100m estilo librea	X	
		100m bizkar estiloa	X	
		100m bular estiloa	X	
		100m tximeleta	X	
		200m estilo librea	X	
		200m bizkar estiloa	X	
		200m bular estiloa	X	
		200m tximeleta	X	
		200m estiloak	X	
		400m estilo librea		X
		800m estilo librea		X
		1.500m estilo librea		X
		4x100m estilo librea	X	
		4x100m estiloak	X	
		4x200m estilo librea	X	
Guztira			25	12

36. Taula: Atenaseko frogak abiadura eta iraupenean banatuta. Iturria: <http://www.olympic.org/london-2012-summer-olympics>

Kirola	Modalitatea	Proba	Abiadura	Iraupena
Atletismoa	Lasterketak	100m	X	
		200m	X	
		400m	X	
		800m	X	
		1.500m		X
		5.000m		X
		10.000m		X
		110m hesiak	X	

Kirola	Modalitatea	Proba	Abiadura	Iraupena
		100m hesiak	X	
		400m hesiak	X	
		4x100m erreleboak	X	
		4x400m erreleboak	X	
		3.000m oztopoak		X
		Maratoia		X
Txirrindularitza	Pista	Bakarkako abiadura	X	
		Taldekako abiadura	X	
		Keirin	X	
		Bakarkako jazarpena		X
		Taldekako jazarpena		X
		Puntuazioa		X
		Madisona		X
Ur kirolak	Igeriketa	50m estilo librea	X	
		100m estilo librea	X	
		100m bizkar estiloa	X	
		100m bular estiloa	X	
		100m tximeleta	X	
		200m estilo librea	X	
		200m bizkar estiloa	X	
		200m bular estiloa	X	
		200m tximeleta	X	
		200m estiloak	X	
		400m estilo librea		X
		800m estilo librea		X
		1.500m estilo librea		X
		4x100m estilo librea	X	
		4x100m estiloak	X	
		4x200m estilo librea	X	
Guztira			25	12

Tauletan ikusi den bezala, Londreseko Joko Olinpikoetan 25 froga izan ziren abiadurakoak eta 10, berriz, iraupenekoak. Pekinen 25 abiadurako froga izan ziren eta 12 iraupeneko eta azkenik, Atenasen nahiz eta Pekineko programa ezberdina izan, datu berberak ikusi genituen, hots, 25 abiadurako froga eta 12 iraupeneko.

9- Bakarkako probak eta taldekako probak

Aurreko puntuarekin jarraituz, atletismoan, igeriketan eta pistako txirrindularitzan, bakarkako zein taldekako probak ezberdintzen dira. 37, 38 eta 39. tauletan diziplina bakoitzaren probak bakarka edota taldeka egin ziren kontutan hartzen da.

37.taula. Londreseko frogak bakarka eta taldeka banatuta. Iturria: <http://www.olympic.org/london-2012-summer-olympics>

Kirola	Modalitatea	Proba	Bakarka	Taldeka	
Atletismoa	Lasterketak	100m	X		
		200m	X		
		400m	X		
		800m	X		
		1.500m	X		
		5.000m	X		
		10.000m	X		
		110m hesiak	X		
		100m hesiak	X		
		400m hesiak	X		
		4x100m			X
		erreleboak			
		4x400m			X
		erreleboak			
		3.000m oztopoak	X		
		Maratoia	X		
		Txirrindularitza	Pista	Bakarkako	X
abiadura					
Taldekako				X	
abiadura					
Keirin	X				
Omniuma	X				
Taldekako				X	
Ur kirolak	Igeriketa	jazarpena			
		50m estilo librea	X		
		100m estilo librea	X		
		100m bizkar	X		
		estiloa			
		100m bular	X		
		estiloa			
		100m tximeleta	X		
		200m estilo librea	X		
		200m bizkar	X		
		estiloa			
		200m bular	X		
		estiloa			
		200m tximeleta	X		
		200m estiloak	X		
		400m estilo librea	X		
		800m estilo librea	X		
		1.500m estilo	X		
		librea			
		4x100m estilo			X
librea					
4x100m estiloak			X		

Kirola	Modalitatea	Proba	Bakarka	Taldeka
		4x200m estilo librea		X
Guztira			28	7

38. taula: Pekin 2008ko frogak bakarka eta taldeka banatuta. Iturria: <http://www.olympic.org/london-2012-summer-olympics>

Kirola	Modalitatea	Proba	Bakarka	Taldeka		
Atletismoa	Lasterketak	100m	X			
		200m	X			
		400m	X			
		800m	X			
		1.500m	X			
		5.000m	X			
		10.000m	X			
		110m hesiak	X			
		100m hesiak	X			
		400m hesiak	X			
		4x100m erreleboak			X	
		4x400m erreleboak			X	
		3.000m oztopoak	X			
		Maratoia	X			
Txirrindularitza	Pista	Bakarkako abiadura	X			
		Taldekako abiadura		X		
		Keirin	X			
		Bakarkako jazarpena	X			
		Taldekako jazarpena		X		
		Puntuazioa	X			
Ur kirolak	Igeriketa	Madisona		X		
		50m estilo librea	X			
		100m estilo librea	X			
		100m bizkar estiloa	X			
		100m bular estiloa	X			
		100m tximeleta	X			
		200m estilo librea	X			
		200m bizkar estiloa	X			
		200m bular estiloa	X			
		200m tximeleta	X			
		200m estiloak	X			
		400m estilo librea	X			
		800m estilo librea	X			
		1.500m estilo librea	X			
		4x100m estilo librea			X	
		4x100m estiloak			X	
		4x200m estilo librea			X	
		Guztira			29	8

39. taula: Atenaseko frogak bakarka eta taldeka banatuta. Iturria: <http://www.olympic.org/london-2012-summer-olympics>

Kirola	Modalitatea	Proba	Bakarka	Taldeka	
Atletismoa	Lasterketak	100m	X		
		200m	X		
		400m	X		
		800m	X		
		1.500m	X		
		5.000m	X		
		10.000m	X		
		110m hesiak	X		
		100m hesiak	X		
		400m hesiak	X		
		4x100m erreleboak			X
		4x400m erreleboak			X
		3.000m oztopoak	X		
		Maratoia	X		
Txirrindularitza	Pista	Bakarkako abiadura	X		
		Taldekako abiadura		X	
		Keirin	X		
		Bakarkako jazarpena	X		
		Taldekako jazarpena		X	
		Puntuazioa	X		
Ur kirolak	Igeriketa	Madisona		X	
		50m estilo librea	X		
		100m estilo librea	X		
		100m bizkar estiloa	X		
		100m bular estiloa	X		
		100m tximeleta	X		
		200m estilo librea	X		
		200m bizkar estiloa	X		
		200m bular estiloa	X		
		200m tximeleta	X		
		200m estiloak	X		
		400m estilo librea	X		
		800m estilo librea	X		
		1.500m estilo librea	X		
		4x100m estilo librea			X
		4x100m estiloak			X
		4x200m estilo librea			X
Guztira			30	7	

Taula hauetan ikus daiteke Londreseko Joko Olinpikoetan 35 probetatik 28 bakarkako probak izan zirela eta 7, berriz, taldekakoak. Pekineko Joko Olinpikoetan, 29 bakarkako eta 8 taldeka egin ziren eta amaitzeko, Atenaseko Joko Olinpikoetan, 30 bakarkako proba eta 7 taldekako proba egin ziren.

Taula hauek aztertu ostean, esan dezakegu bakarkako probak askoz ere garrantzia handiagoa dutela programan eta taldekako probak aurki bagenitzake ere, ez dute aukera berdinez gozatzen

METODOLOGIA

Joko Olinpikoetan emankortasun handiena duten kirolak zeintzuk diren, nazio garaileak zeintzuk diren, kirol bakoitzean arrakasta zeintzuk duten, biztanleria kontutan hartuta zeintzuk diren domina gehien irabazten dutenak, Espainiako kasua aztertu ondoren eta diziplina eta probak sailkatu ondoren, gure ikerketa bideratzeko asmoz, lagungarri izango zaizkigun beste ikerketen bilaketan zentratu gara. Era berean, arlo honetan gaur egun zientifikoki dugun egoerara gerturatzeko balio izan digu. Lehenik eta behin gure bilaketa talentuen inguruan dagoena ikusiz, hainbat datu baseetan aritu gara. Jarraian, garrantzitsutzat jo ditugun alderdiak aipatuko ditugu.

Datu baseen analisi bibliografikoa:

Analisi bibliometrikoa egiten hasi baino lehen, bilaketaren estrategia bat landu dugu. Gure gaiak lehenengo mailako dibulgazio zientifikoan presentzia nabarmena duenez, gure estrategia jarduera fisiko eta kirolen zientzien inguruan existitzen diren datu base adierazgarrienak hartzea izan zen.

Maila nazionalean kontsultatu ditugun datu baseak hauek izan dira: *Dialnet eta e – Revistas*; maila internazionalen, berriz, *MEDLINE, Pro Quest Central, Science Direct, eta EBSCO Host*. Argitalpen guztiak izateko asmoz, bilaketarako termino hauek erabili dira: *identificación de talentos deportivos / talent identification in sport, detección de talentos deportivos / talent detection in sport, identificación de talentos en el atletismo / talent identification in athletics, identificación de talentos en la natación / talent identification in swimming, identificación de talentos en el ciclismo / talent identification in cycling, detección de talentos en el atletismo / talent identification in athletics, detección de talentos en la natación / talent detection in swimming, detección de talentos en el ciclismo / talent detection in cycling, batería de tests en el atletismo / test battery in athletics, batería de tests en la natación / test battery in swimming, batería de tests en el ciclismo / battery test in cycling, programas de identificación de talentos / talent identification programme eta programas de detección de talentos / talent development programme.*

Bilaketa honen emaitzekin orain arte argitaratutako ikerketen zenbakiarekin, gaiekin, eta urteekin analisi bat egin da.

Jarraian, 40. taulan, datu base guztiak behatu ondoren, bilaketa bakoitzean izandako zenbakiak aipatuko ditugu.

40. taula: Kontsultatutako datu baseetan aurkitutako erreferentzien emaitzak

Datu baseak	Erreferentziak	Ehunekoa (%)
<i>Dialnet</i>	119	3,95
<i>e – Revistas</i>	0	0
<i>MEDLINE</i>	1373	45,58
<i>Pro Quest Central</i>	721	23,93
<i>SciendeDirect</i>	278	9,22
<i>EBSCO Host</i>	521	17,29
GUZTIRA	3012	100

Dialnet datu basea hispainiar produkzio zientifikoko ataria da, non 9425 aldizkari, 4.663.659 dokumentu eta 43.234 doktorego tesi aurkezten dituen. 41. taulan ikus daitekeen bezala, bilaketan zehar lortutako emaitzak agertzen dira

41. aula: Dialnet datu basean lortutako emaitzak

Hitz gakoak	Erreferentziak	Urtea	Erreferentziak urteka	%
Identificación de talentos deportivos	11	2000 – 2009	8	72,72
		2010 - 2015	3	27,27
Detección de talentos deportivos	54	1990 - 1999	18	33,33
		2000 – 2009	24	44,44
		2010 - 2015	12	22,22
Identificación de talentos en el atletismo	4	2000 – 2009	2	50
		2010 - 2015	2	50
Identificación de talentos en la	3	2000 – 2009	3	100

Hitz gakoak	Erreferentziak	Urtea	Erreferentziak urteka	%
natación				
Identificación de talentos en el ciclismo	0	0	0	0
Detección de talentos en el atletismo	5	1990 – 1999	2	40
		2000 – 2009	3	60
Detección de talentos en la natación	6	2000 – 2009	5	83,33
		2010 – 2015	1	16,66
Detección de talentos en el ciclismo	2	2000 – 2009	1	50
		2010 – 2015	1	50
Batería de test en el atletismo	5	2000 – 2009	5	100
Batería de test en la natación	0	0	0	0
Batería de test en el ciclismo	0	0	0	0
Programa de identificación de talentos	13	1990 – 1999	3	23,07
		2000 – 2009	6	46,15
		2010 – 2015	5	38,46
Programa de detección de talentos	16	1990 – 1999	3	18,75
		2000 – 2009	10	62,5
		2010 – 2015	3	18,75

Kontsultatu dugun beste datu base bat e – *Revistas* plataforma digitala izan da. Bertan, oso baldintza zorrotzak betetzen dituzten aldizkari elektroniko espainiarrak eta latinoamerikarrak aurki daitezke. Honek 1368 aldizkari jasotzen ditu eta 366.097 artikuluz osatua dago. Egindako bilaketan, ez dira emaitzarik aurkitu

MEDLINE datu baseak, medikuntza, erizaintza, odontologia, albaitaritza medikuntza, medikuntza asistentzia sistema eta zientzia preklinikoko esparruak betetzen ditu. Estatu Batuetan eta beste 70 herrialdeetan publikatutako 4.000 egunkari biomedikuetan egindako aipamen bibliografiko eta autoreen laburpenak daude bertan eta 1960. urtez geroztik jaso diren 14 milioi aipamen aurkitzen dira. 42. taulan, bilaketan zehar lortutako emaitzak ageri dira.

42. taula: MEDLINE datu basean lortutako emaitzak

Hitz gakoak	Erreferentzia	Urtea	Erreferentziak urteka	%
Talent	162	1990 – 1999	6	3,7
identification in		2000 – 2009	45	27,7
sport		2010 – 2015	111	68,51
Talent	15	2000 – 2009	7	46,66
detection in		2010 - 2015	8	53,33
sport				
Talent	155	1990 – 1999	6	3,87
identification in		2000 – 2009	45	29,03
athletics		2010 – 2015	104	67,09
Talent	8	2000 – 2009	2	25
identification in		2010 – 2015	6	75
swimming				
Talent	1	2010 – 2015	1	100
identification in				
cycling				
Talent	13	2000 – 2009	6	46,15
detection in		2010 – 2015	7	53,84
athletics				
Talent	2	2000 – 2009	1	50
detection in		2010 – 2015	1	50
swimming				
Talent	1	1980 – 1989	1	100
detection in				
cycling				

Hitz gakoak	Erreferentzia	Urtea	Erreferentziak	%
			urteka	
Test battery in athletics	824	1970 – 1979	11	1,33
		1980 – 1989	27	3,27
		1990 – 1999	75	9,1
		2000 – 2009	303	36,77
		2010 – 2015	408	49,51
Test battery in swimming	100	1970 – 1979	3	3
		1980 - 1989	11	11
		1990 - 1999	11	11
		2000 – 2009	47	47
		2010 – 2015	28	28
Test battery in cycling	92	1990 – 1999	5	5,43
		2000 – 2009	16	17,39
		2010 – 2015	71	77,17
Talent identification programme	15	2000 – 2009	6	40
		2010 – 2015	9	60
Talent detection programme	0	0	0	0

Pro Quest Central datu basean hainbat arlotako artikuluak aurki genitzake. Bertan 6 mendeetan zehar baimendutako 90.000 iturri, 6 milioi orrialde digital gordetzen ditu. Hitzaldi eta tesien mundu mailako bildumarik handiena du; 20 milioi orri eta 450.000 liburu elektroniko (mundu mailako aldizkari akademiko garrantzitsuenetatik erantsitako bildumak) ditu. 43. taulan ikusten den bezala, bilaketan zehar lortutako emaitzak ageri dira.

43. Taula: Pro Quest Centraleko datu basean lortutako emaitzak

Hitz gakoak	Erreferentzia	Urtea	Erreferentziak	%
			urteka	
Talent	269	1990 – 1999	12	4,4

Hitz gakoak	Erreferentzia	Urtea	Erreferentziak	%
			urteka	
identification in sport		2000 – 2010	103	38,28
		2010 – 2015	154	57,24
Talent detection in sport	13	1990 – 1999	2	15,38
		2000 – 2010	5	38,46
		2010 – 2015	6	46,15
Talent identification in athletics	94	1970 – 1979	1	1,06
		1980 – 1989	1	1,06
		1990 – 1999	12	12,76
		2000 – 2010	43	45,74
		2010 – 2015	37	39,36
Talent identification in swimming	85	1990 – 1999	4	4,7
		2000 – 2010	33	38,82
		2010 – 2015	48	56,47
Talent identification in cycling	43	1960 – 1969	3	6,97
		1970 – 1979	0	0
		1980 – 1989	1	2,32.
		1990 – 1999	3	6,97
		2000 – 2009	10	23,25
		2010 - 2015	26	60,46
Talent detection in athletics	13	1990 – 1999	1	7,69
		2000 – 2009	6	46,15
		2010 – 2015	6	46,15
Talent detection in swimming	12	1980 – 1989	1	8,33
		1990 – 1999	2	16,66
		2000 – 2010	3	25
		2010 – 2015	6	50
Talent detection in	14	2000 – 2009	3	21,42
		2010 – 2015	11	78,57

Hitz gakoak	Erreferentzia	Urtea	Erreferentziak urteka	%
cycling				
Test battery in	4	1990 – 1999	2	50
athletics		2000 – 2009	1	25
		2010 – 2015	1	25
Test battery in	66	1960 – 1969	7	10,6
swimming		1970 – 1979	1	1,51
		1980 – 1989	6	9,09
		1990 – 1999	14	21,21
		2000 – 2010	28	42,42
		2010 – 2015	10	15,15
Test battery in	81	2000 – 2009	25	30,86
cycling		2010 – 2015	56	69,13
Talent	11	2000 – 2009	11	100
identification				
programme				
Talent	16	1960 – 1969	5	31,25
detection		1970 – 1979	0	0
programme		1980 – 1989	1	6,25
		1990 – 1999	0	0
		2000 - 2009	3	18,75
		2010 – 2015	7	43,75

EBSCO HOST datu basean ez dira aurkitu eskura ditugun artikuluen kopurua. 44. taulan bilaketan zehar lortutako emaitzak ageri dira.

44. .taula: EBSCO HOST datu basean lortutako emaitzak

Hitz gakoak	Erreferentzia	Urtea	Erreferentziak urteka	%
Talent	85	1990 – 1999	2	2,35
identification in		2000 – 2009	35	41,17
sport		2010 – 2015	48	56,47

Hitz gakoak	Erreferentzia	Urtea	Erreferentziak urteka	%
Talent detection in sport	7	2000 – 2009	4	57,14
		2010 – 2015	3	42,85
Talent identification in athletics	7	2000 – 2009	3	42,85
		2010 – 2015	4	57,14
Talent identification in swimming	3	2000 – 2009	2	66,66
		2010 – 2015	1	33,33
Talent identification in cycling	2	2000 – 2009	1	50
		2010 – 2015	1	50
Talent detection in athletics	1	2010 – 2015	1	100
Talent detection in swimming	2	2000- 2009	1	50
		2010 – 2015	1	50
Talent detection in cycling	0	0	0	0
Test battery in athletics	17	1980 – 1989	1	5,88
		1990 – 1999	0	0
		2000 – 2009	4	23,52
		2010 – 2015	12	70,58
Test battery in swimming	27	1980 – 1989	1	3,7
		1990 – 1999	0	0
		2000 – 2009	20	74,07
		2010 – 2015	6	22,22
Test battery in cycling	78	1980 – 1989	1	1,28
		1990 – 1999	2	2,56

Hitz gakoak	Erreferentzia	Urtea	Erreferentziak urteka	%
		2000 – 2009	38	48,71
		2010 – 2015	37	47,43
Talent identification programme	49	1990 – 1999	3	6,12
		2000 – 2009	25	51,02
		2010 – 2015	19	38,77
Talent detection programme	3	2000 – 2009	2	66,66
		2010 – 2015	1	33,33

ScienceDirect datu basean, aldizkari nagusien artikuluko osoak jasotzen ditu. 2.500 aldizkari inguru aurki daitezke eta hauek 13.397.561 artikuluko osatzen dute. Hauen gain, 30.000 liburu ere aurki daitezke bertan. 45. taulan, bilaketan zehar lortutako emaitak azaltzen dira.

45. taula: ScienceDirect datu basean lortutako emaitzak


Hitz gakoak	Erreferentzia	Urtea	Erreferentziak urteka	%
Talent identification in sport	118	1980 – 1989	3	2,54
		1990 – 1999	7	5,93
		2009 – 2009	71	60,16
		2010 – 2015	37	31,35
Talent detection in sport	31	1980 – 1989	1	3,22
		1990 – 1999	3	9,67
		2000 – 2009	18	58,06
		2010 – 2015	9	29,03
Talent identification in athletics	52	1980 – 1989	1	1,92
		1990 – 1999	4	7,69
		2000 – 2009	35	67,3
		2010 – 2015	11	21,15
Talent	54	1980 – 1989	2	3,7

Hitz gakoak	Erreferentzia	Urtea	Erreferentziak	%
			urteka	
identification in swimming		1990 – 1999	5	9,25
		2000 – 2009	34	62,96
		2010 – 2015	13	24,07
Talent identification in cycling	46	1980 – 1989	1	2,17
		1990 – 1999	2	4,34
		2000 – 2009	32	69,56
		2010 – 2015	11	23,91
Talent detection in athletics	9	2000 – 2009	7	77,77
		2010 – 2015	2	22,22
Talent detection in swimming	13	1990 – 1999	1	7,69
		2000 – 2009	7	53,84
		2010 – 2015	5	38,46
Talent detection in cycling	12	1990 – 1999	1	8,33
		2000 – 2009	5	41,66
		2010 – 2015	6	50
Test battery in athletics	14	1980 – 1989	2	14,28
		2000 – 2009	10	71,42
		2010 – 2015	2	14,28
Test battery in swimming	27	1990 – 1999	3	11,11
		2000 – 2009	11	40,74
		2010 - 2015	13	48,14
Test battery in cycling	27	1990 – 1999	3	11,11
		2000 – 2009	14	51,85
		2010 – 2015	10	37,03
Talent identification programme	93	1980 – 1989	3	3,22
		1990 – 1999	5	5,37
		2000 – 2009	61	65,59
		2010 – 2015	24	25,8

Hitz gakoak	Erreferentzia	Urtea	Erreferentziak urteka	%
Talent detection programme	25	1990 – 1999	3	12
		2000 – 2009	16	64
		2010 – 2015	6	24

Datu baseetan aurkitu dugun artikuluen kantitatea oso handia izan denez, aukeraketa irizpide batzuk erabili behar izan ditugu bilaketa zehatzagoa egiteko. Bertan gure kirolekin zerikusia ez zuten artikuluen asko aurkitu ditugu eta hauek guztiak ezabatzea erabaki dugu. Ondoren, artikuluen izenburuak irakurri ditugu eta hemen ere garbiketa handia egin dugu. Azkenik, laburpenak irakurri ostean gure gaiarekin zerikusirik ez zuten horiek ezabatu ditugu. Ondorengo irudian aukeraketa irizpidea garbiago azalduko dugu:

5. Irudia: Aukeraketaren irizpidea (Sousa, eta Ribeiro, 2009)




Jarraian (46. taulan) datu baseak errebisatu ondoren erabili ditugun artikuluak aurkitzen dira.

46. Datu baseetarik ateratako erreferentziak

Datu baseak	Erreferentziak	Ehunekoa (%)
<i>Dialnet</i>	6	7.79
<i>e – Revistas</i>	0	0
<i>MEDLINE</i>	17	22.07
<i>Pro Quest Central</i>	9	11.68
<i>SciendeDirect</i>	14	18.18
<i>EBsco Host</i>	13	16.88
<i>Google akademikoa</i>	18	23.37
GUZTIRA	77	100

Ondorengo irudian (6. irudian), lanaren mapa kontzeptuala azaltzen da. Bertan, orokortasunean gure lanaren hierarkia irudikatzen da eta proposamen eta lotura hitzez osatua dago.

6. irudia: Lanaren Mapa kontzeptuala



TALENTUAK

Arlo konkretu batean arrakasta izatera hel daitekeen aparteko talentua duen subjektuaren bilaketak, ikerlari askoren denbora eta ardura bete du. Talentua duen pertsona baten kontzeptua espezialista askoren artean egon da, ez kirolean soilik, baizik eta matematika, literatura, musika, zinea ... bezalako arlotan ere.

RAEk (Real Academia Española) 1984an, talentuaren terminoa honela definitu zuen: "Jainkoak dohainen natural edo naturaz gaindiko multzoarekin aberastu duen gizakia".

Ruiz eta Sanchezek, (1997an) oso adin goiztiarretik jarduera konkretu baterako trebetasun bereziak erakusten duen pertsona bezala definitu zuten.

Ikus daiteke definizio hauek talentua azaltzerakoan nola beharrezko dohain edo gaitasun batzuk azaltzen dituzten eta ia beti arrakasta hauek lortzeko genetikaren menpe azaltzen dituzten.

Baina definizioekin aurrerantz egiten goazen heinean, testuinguru espezifikokoago batera hel gaitezke.

Gabler eta Rouffek (1979an) "kirol talentua eboluzio egoera jakin batean dagoen pertsona, bere gaitasun eta oinarri fisiko eta psikiko jakinen ondorioz, uneren batean, probabilitate handiekin, kirol konkretu batean goi mailako prestazioak izatera hel daitekeen pertsona kontsideratzen dute".

Zatsiorskik (1989an), "gaitasun motor eta psikologikoen konbinazioak eta trebezia anatomofisiologikoen multzo bat osatzen dute, non kirol konkretu baten goi mailako emaitzak lor ditzakeen potentzialaren aukera sortzen duten".

Hahnek (1988an) "direkzio batean nabarmendu den trebezia da, non batzuetan neurria gailendu duen eta oraindik guztiz garatu gabe dagoen" eta "normaltzat jotzen dugunaren gainetik, kirolean errendimendu altua lortzeko gaitasun eta ahalmena" dela gaineratzen du.

Azken ideia hauek badirudi adituek goi mailako kirolari izatera heltzen eta heltzen ez direnen artean dagoen diferentziazat hartzen dituztela. 7. Irudian

Hala eta guztiz ere, Hahnek arlo honetan gehiago sakontzen du eta kirol arloan hainbat talentu mota ezberdintzen ditu:

Talentu motor orokorra: Gaitasun motorrak bereganatzeko erraztasun handia duena eta ondorioz, menperatze motor errazagoa, seguruagoa eta azkarragoa lortzeko aukera duena.

Kirol talentua: Entrenamendu programa bat batz bestekoaren gainetik jasateko eta kirolean arrakasta lortzeko aukera duena.

Kirol konkretu baterako talentua: Aparteko errendimendua lortzeko baldintza fisiko eta psikikoak jasan ditzakeena.


Gaur egun, artikulu ezberdinetan ikus daiteke “talentu” terminoa, “subjektu aditura” pasa dela; gauzak horrela, orain arteko talentu kontzeptuaren gerturatzea erabat ezberdina suposatzen du (Lorenzo, 2001).

1997an E. P. S aldizkariak Salmelari eginiko elkarrizketa batean, talentuaren kontzeptua aldatu egin dela baieztatzen du. Lehen, talentuaren nozioa, subjektuari atxikituta errendimendua zehazten zuten gaitasunekin lotzen zen. Urteetan zehar aditu askok onartutako ideia izan dela azaltzen du, baina berak kontzeptua aldatu behar dela dio.

Durand – Bush eta Salmelak (1996an) aditua honela definitzen dute: “Eskarmentuduna, praktikaren bitartez ikasi duena, trebea, bizkorra eta praktikaren bitartez erraztasunez etekina ateratzeko prest dagoena. Pertsona iaioa edo esperientziaduna”. Aditu hauek baieztatzen duten bezala, definizio motz honen zatirik garrantzitsuena praktika eta esperientzia behin baino gehiagotan agertzen dela da, eta honek lana eta praktikaren perspektiba defendatzen dutenentzako punturik garrantzitsuena dela erakusten du (Lorenzo, 2001).

7. irudian talentuaren kontzeptuaren eboluzioa azaltzen da.

7. irudia: talentuaren kontzeptua (Lorenzo, 2001)



Ikus daitekeenez, talentua batz bestekoaren gainetik dagoen ezaugarri bat baino gehiago da. Talentua berezko osagai ezberdinen konbinazioaren ondorioz ageri ohi da (Abbot et al, 2004; Simonton, 1999). Hau da, talentua ez da kontzeptu bakarreko dimentsio bat bezala ulertu behar, kontzeptu multidimentsional eta ugari bat bezala baizik. Hau kontutan izanik, denborak aurrera egin duen heinean, kirolariaren ezaugarriak bilakaera bat izan dute eta adinaren arabera, kirol detekzioan erabil ahal izateko erreminta ezberdinak diseinatzera bultzatu dute.

Amaitzeko, beste termino kontzeptual baten garrantzia aipatzea beharrezkoa jotzen dugu: jarrera. Gure kirolariaren jarreraren kudeaketa zuzen bat gabe, hau da, kirolariak ez badu nahi edota ez badago prest kirol bikaintasuna lortzera eramango duen prozesua jarraitzeko, ez dio balioko trebea izateak, aditua izatea ezta egunen batean gaituko dituen ezaugarriak edukitzea (Irurtua eta Iglesias, 2009).

Singler eta Janellek (1999an), “txapelketak bikaintasuna adierazteko mekanismo bat besterik ez direla” diote. Hortaz, emaitza horiek lortzera bultatu dituzten kirolarien faktoreetan zentratuko gara jarraian.

Goi errendimendu hori lortzeko prezioak hainbat faktoreen elkarrekintza eta errendimendu fisikoaren dimentsioak dakartza. Hauen artean faktore

genetikoa aurkitzen da, non besteak beste alderdi hauek zehazten dituen: a) pertsonaren gaitasun konpetitiboarekin lotuta dauden ezaugarri pertsonalak eta kontrol emozionala; b) kirolariaren ezaugarri antropometrikoak; c) abiadura, potentzia, bizkortasuna edota malgutasuna bezalako gaitasun motorrak; d) osasuna eta kirol praktika eragozten duen gorabehera kronikoen eza.

Malina eta Bouchardek (1981), faktore kontextualak aipatzea ere beharrezkotzat jotzen dute, izan ere, hauen ustetan urte askotan ongi planifikatuta eta egituratuta dagoen entrenamenduak garatzea ezinbestekoa da. Hauek baldintza egokietan egin izana, entrenatzaile egokiak izatea edo une erabakigarrietan lesiorik ez izateak kirolaria ez erretiratzera edota bere gaitasunak erakusteko aukera izatera bideratzen du.

Bi alderdi hauek mota honetako kirolarien garapena islatzen dute (Chaveau, 1999). Era honetara, paradigma positibistan nagusitzen den 80ko hamarkadaren erdira arte iraun duen tendentziak, kirolarien errendimendua unitate sinpleetara murriztu eta oso erraz ebaluatu daitekeen test baterien bitartez motako honetako kirolariak identifikatzeko aukera eman die (Lorenzo, 2003).

90. hamarkadaren hasieran, iraultza epistemologiko bat gertatzen da eta mota honetako kirolariak ikuspegi soziokritikoago batetik ikertzen hasten dira, non funtsezko helburua kirolaria arrakasta izateraino izan duen garapena ikertzea den.

Edozein alderdiren alde edo kontra kokatzen garela ere, badirudi bi alderdiek kirolariaren etorkizuna baldintzatzen dutela. Onartu beharra dago gizabanako batzuk beste batzuk baino zorioneko ezaugarriak dituztela, esaterako ezaugarri fisikoak edo entrenamendura egokitzeko gaitasuna. Ondorioz, kirol konkretu batean ezaugarri hauek ez dituztenak baino errendimendu hobea bat izateko aukera handiagoa dute. Hau da, zenbat eta dohain genetiko hobea izan, orduan eta arrakasta lortzeko aukera handiagoa izango dute (Lorenzo eta Sanpaio, 2005),

Jarraian, aipatu berri ditugun alderdi hauek errendimendua zenbateraino baldintzatzen duten ikusiko dugu.

Entrenamendua

Beharbada, ez da harrigarria izango emaitza bikainak lortzeko entrenamendu kantitate handiak behar direla. Azken urteetan ikerketa ugari egin dira testuinguru honen inguruan eta bi garapen ezberdin bereiztu dira.

Lehenengoa, jakinaren gainean egindako teoriarekin erlazionatzen da. Ericcsonek 1993an garatu zuen teoria honek, urteetan zehar ongi planifikaturiko entrenamendu batek eragin zuzena zuela zioen eta kirolariaren iaiotasuna, ezaugarri genetikoekin ez dagoela hain erlazionaturik azpimarratu zuen. Praktikaren kalitatea eta kantitatea lortutako errendimendu mailarekin erlazionaturik zegoela aitortu zuen. Jakinaren gainean egindako praktika hau oso ondo egituraturiko praktika bat da, non aurrera egin eta hobetzeko desioa dagoen eta ez ongi pasatu edota jolasteko asmoa dagoen.

Gainera, jakinaren gainean egindako praktika honek zereginak ondo definiturik eta estimulatzailerak izatea eskatzen du, kirolariarengan feedback bat egotea eta beharrezko errepikapenak eta akatsak zuzentzeko aukerak izatea eskatzen du.

Kirolari aditu eta ez adituen artean egindako ikerketetan ikusi da adituek denbora gehiago eskaini ohi diotela praktika honi. Denbora hau ez diote soilik entrenamenduari eskaintzen, entrenamendu taktikoak egiten, bideoak ikusten ... ere denbora gehiago eskaintzen diotela ikusi da. Adinak aurrera egiten duen heinean, ezberdintasun handiak ikusi dira praktikari eskaintzen dioten denboran.

Kontutan izan behar dugun bigarren kontzeptua 10 urteko erregela da. Bertan, kirolari aditua izatera heltzeko, gutxienez 10 urteko entrenamendu planifikatu bat jarraitzea beharrezkoa dela azpimarratzen da.


Zentzu honetan, "10 urteko erregela" baten existentzia bat dagoela erakusten duten hainbat ikerketa aurki genitzake (Button, 2011; Collins, 2012; Cortes, 2002; Vaeyens et al, 2009; Lorenzo, 2003; Lorenzo et al, 2005; Lorenzo, Jimenez eta Lorenzo, 2014; Pila Hernandez, 2009).

Bloom 1985 eta Ericcson 1993 dira teoria honen ordezkari nagusiak, izan ere, kirolari bat entrenamenduetan praktika orduz “elikatzea” trebetasuna edo esperientzia garatzea baino garrantzitsuagoa dela argudiatzen baitute.

Ez da adierazten 10 urte entrenatzen igaro ondoren desiratutako emaitzak lortuko direla; baizik eta emaitza horiek lortzeko gutxienez 10 urteko praktika beharrezkoa dela.

Badirudi nahiko bistakoa dela zenbat eta gehiago praktikatu, denbora gehiagoz eta kontzentrazio, esfortzu eta determinazio maila egoki batekin aritzeak, orduan eta errendimendu hobeto lortuko dela. Baina hau horrela zehatz – mehatz izango balitz, 10 urte igaro ondoren edonor izango litzateke kirolari aditua. 8. irudian talentua berezkoa edo erdietsitako interakzioaren azalpena ematen da.

8. irudia: Berezkoa edo erdietsitako interakzioaren argudioak (Meyers, et al. 2013)




Isuri honek entrenamendua eta errendimendua alde du, izan ere, jarduera interesgarriak mantentzen ditu.

Talentuaren hurbilketa berri honek, talentuen identifikazio prozesuaren ikuspegia nahiko argi aldatzen du. Talentu eta detekzio klasikoak goitik - beherako (top – down) orientazioa aldatzen du, hau da, eliteko kirolariak erreferentziatzat hartzea eta hauen emaitzen arabera hurrei aplikatutako test bateriak sortzea, orientazio berri batengatik aldatua izaten ari da.

Kontzeptu berri honek, analisia alderantziz egitea proposatzen du behetik – gora, alegia. Era honetan, nerabezaroan arrakasta izan zuten eliteko kirolarien prozesua aztertu eta ezberdintasunak sortzen dituzten aldagaiak nabarmentzea proposatzen da (Regnier, Salmela eta Russell, 1993; Ruiz, 1998).

9. irudian, talentuaren kontzeptuaren hurbilketa berria era grafiko batean azaltzen da.

9. irudia: Talentuaren kontzeptuaren hurbilketa berria (Lorenzo, 2003)



Abernethy, Coté eta Baker (2002an) goi mailako 15 kirolari ikertu zituzten beren hastapenetatik. Hiru etapa ezberdin aurkitu zituzten, 13 urterekin derrigorrezko bigarren hezkuntzan hastean inflexio puntu bat gertatuz beste kirolean murrizketa bat emanez (espezializazioaren hasiera). Beste inflexio puntu bat 16 urterekin eman zen kirolariak beren aisialdiko denbora guztia entrenamendura bideratzean eta goi mailako kirolariak bilakatzearen erabakia hartzeko unean hain zuzen.

Praktikatutako jardueri dagokionez, kirol jarduerak praktikatzen hasi ziren (5 urtetik 12 urtera gutxi gorabehera), haurrak hainbat jarduera ezberdin praktikatzen dituztela ikusi da. Hala ere, kirolari adituei dagokionez, 13 urteetatik aurrera murrizketa nabarmen bat ematen dela ikusi da eta murrizketa hau hain trebeak ez diren kirolarien artean, berriz, ematen ez dela ikusi da.

Adituek, bi alderdi hauez gain, kirolariaren aldetik bere kirol bizitzan sortuko diren eragozpen guztiei aurre egin ahal izateko konpromiso oso handi bat beharrezkoa dela nabarmentzen dute.

Testuinguru honetan, kirol konpromisoaren teoria garatu da. Kirolariak entrenatu duen kantitatea arrakasta lortzeko faktore bat den unetik, beharrezkoa da jakitea kirolaria kirol horrekin konprometitzera eta beharrezko esfortzu eta kontzentrazio egokia izatera bultzatzen dituen alderdiak. Kirolariaren aldetik konpromisoa gehien baldintzatzen duten faktoreak dibertsioa eta esfortzu pertsonala dira eta neurri txikiago batean, inguruneak eskaintzen dituen aukerak.

Entrenamenduaren kalitatea:

Kirolariei eskaintzen zaizkien entrenamenduen kalitateaz arduratzea beharrezkoa da. Jakinaren gainean egindako entrenamenduaz hitz egitean, entrenamenduak inplizituki trebetasun zuzenak eta beharrezkoak dituela eta gainera era egoki batean egiten dela onartzen dugu.

Alor honetako lehenengo galdera entrenamenduari eskainitako denboraren eraginkortasuna hobetu daitekeen izango da.

Jakinaren gainean egindako praktikaren teoriaren hanpadurak, entrenamenduen mikroegiturak ikertzea ekarri du. Kasu batzuetan, entrenamenduaren erdia “ez aktibo” bezala kontsideratu daiteke (Starkes, 2000). Ikerketa hauek entrenatzaileak euren entrenamenduetan praktika gehiago lantzeko orduak bilatu beharrean errentagarriagoak bilakatu behar dituztela ondorioztatzen dute.

Entrenatzaile adituak entrenamendua ongi antolatzen eta entrenamenduaren denbora optimizatzen paper garrantzitsua betetzen du. Kontutan izateko beste alderdi bat kirolariari kanpotik emandako laguntza murriztuz, entrenamendu sistemak jasan behar duen bilakaera da; honela, kirolaria gero eta autonomoagoa bilakatuz eta bere beharrez kontzienteago bihurtuz.

Gai honen inguruan (Singer eta Janelle, 1999) hiru etapa bereziten dituzte. Lehenengoan, haurrak gaitasun basikoak ikasteko helburuarekin guraso, entrenatzaile eta irakasleen konpromiso handia inplikatzen duen kanpo orientazioa ematen da. Trantsizio etapa kanpo orientazioaren murrizketa bat ematen da ikasketa autonomoago baten bila. Azkeneko etapa, autoerregulazio etapa, lehia handia egoteagatik bereizten da, non ikasketaren zati handi bat kirolaria berarengandik egituratua dagoen eta hein handi batean bere kontrolpean dagoen. Oraindik ere entrenatzaileak ematen dion informazioaren menpe egoteko joera du, baina bere akatsak zuzentzeko eta hobetzeko gaitasunaz baliatzen da.

Entrenamenduen egitura mugimendu egokiak eskuratzera bideratuta egoteaz gain, txapelketaren baldintza berberetara egokitzearen beharra ere oso garrantzitsua da. Entrenatzailearen enfasia txapelketaren baldintzetara gehien egokitzen diren ariketak prestatzean egon behar da (Lorenzo et al, 2005).

Bistakoa da informazioaren prozesamendua, atentzioa, erabakiak hartzea eta gauzatzea antsietate maila ezberdinengatik, motibazioarengatik eta txapelketan zehar ematen diren beste egoerengatik eragindua gertatzen dela Hori dela eta, txapelketaren presioa eta txapelketen egoerak entrenamenduaren zati bihurtzen dira.

Entrenatzaileak

Entrenatzaileak ikasketarako ingurugiro egoki bat sortzen duen abilezia faktore gakoetako bat izango da kirolari baten garapena ahalbidetzeko garaian.

Entrenatzaile adituak entrenamenduaren planifikazio zorrotz bat egin ohi dute. Hauek entrenamendu planifikatzeari denbora gehiago eskaintzen diote eta saioaren helburuak zehatzagoak izan ohi dira (Voss eta al. 1983; Barker eta al., 2003).

Ikasketak hobekuntza bat izango du entrenamenduaren egiturak honako printzipio hauek betetzen baditu: irakaskuntzan progresioa, praktikaren aldakuntza eta irakaskuntza metodoak (Voight, 2002). Entrenatzaile eraginkorrenak kirolariak ahalik eta denbora gehienez esku hartzeko aukera ematen dion jarduerak egituratzen ditu zer egin, noiz eta zergatik azalduz.

Adin goiztiarretan egiten den entrenamendua kirolaren oinarrizko informazio teknikoaz baliatzea proposatzen da. Era berean, entrenatzaileak kirolariaren motibazioa eta gogoia piztu behar ditu. Geroago, kirolariak entrenatzailearekin duen harremana estuagoa eta profesionalagoa da eta aldi berean entrenatzaileak “teknikoago eta serioagoa” izango da entrenamenduaren inplikazio eta eskakizunari dagokionean. Entrenatzaileen portaera honek kirolariaren konpromisoa indartuko du, entrenamenduen kantitatea eta intentsitatea handituz (Baker et al., 2003).

Bai entrenamenduaren plangintza eta antolakuntzak, baita ikuspegi zabalago batetik hauen egituraketak, kirolari nerabeen laguntza pertsonala eta kirolez kanpo giro ona sortzeak ere, entrenatzailearen betebeharrak izan behar dira.

Hau guztia kontutan izanik, entrenatzaileak ez du soilik alderdi tekniko taktikoez arduratu behar, baizik eta kirolariaren testuinguruaren aspektuez ere arduratu behar da (azterketak, bere erlazio sozialak ...) dudarik gabe bere adorean eragin zuzena baitute, baita entrenamenduaren kalitatean eta garapenean ere.

Familiaren eragina

Azken urteetan egindako ikerketetan, familiaren eraginak trebetasunaren garapenean garrantzia handia duela ikusi da. Lehenengo etapa honetan, guraso eta irakasleak dira haurraren orokorrean edota arlo jakin batean “talentu moduko bat” nabaritzen dutenak. Etapa honetan gurasoak haurraren kirol partehartzea sustatu behar dute eta askotan entrenamenduetan edo irakaspenetan nahasirik aurkitzen dira. Bigarren fasean guraso eta kirolaria kirol konkretu batean konpromiso handiago bat izateagatik nabarmentzen da, askotan etapa honetan kirol diziplinak ohitura familiarra menperatuz. Hirugarren fasean, familiaren eragina gutxiagotu egiten da kirolariak oinarrizko jakintza bat izaten hasten delako eta entrenatzaile eta gurasoen gaitetik, bere erantzukizun propioa eskuratzen hasten da. Era honetan, gurasoak bere seme – alabei laguntza ematen jarraituko die, baina bigarren planoan eta laguntza emozionala ekonomikoaren gaitetik gailenduko da. Gurasoak entrenamenduetan ezarritako kargak murrizten laguntzen diete beren seme - alabei, batez ere maila psikologiko batean (Sloane, 1985).

Beranduago Côté, 1999an talentuen garapenean hiru etapa bereiztu zituen: probatzeko urteak (6 urtetik 12 urtera), espezializazio urteak (13 urtetik 15 urtera) eta inbertsio urteak (16 urtetik aurrera). Lehenengo etapan, familiak haurrari hainbat kirol praktikatzeko aukera eskaintzen dio, familiak kirol eremua bultzatzen duela bereiziz eta kirolaren aukeraketa ez dela hain garrantzitsua nabarmenduz.

Espezializazio urteetan, gurasoak ekonomia – baliabideak eta denbora konprometitzen dute beren seme – alabak entrenatzaile, instalazio ... egokiagoak izateko aukerara heltzeko asmoz. Azken urteetan, gurasoak aholkularitzat aritzen dira soilik, oso garrantzitsua den euskarri emozionala eskainiz.

Txapelketa

Ikerketa batzuetan trebetasunaren faktore baldintzatzaile bezala kontsideratzen da. Bloomek 1985ean txapelketak, iaotasunaren garapenak aurrera egiten duen heinean, 3 faseetan bereizten zen eboluzio bat jarraitzen

duela zioen. Lehenengoan, txapelketak ia ez du garrantzirik eta dibertsioaren faktoreak errendimenduaren gainera nagusitzeaz gain, hurrei esperientzia positiboez hornitu behar die. Espezializazio fasearen garaian, txapelketak garrantzia gehiago hartzeaz gain, heziketaren alderdi garrantzitsu bat bihurtzen da; izan ere, zenbait kirolariek esperientzia konpetitibo aberatsak lortzen dituzte (batzuk txapelketa nazionalak lehiatzeko hautatuak izaten dira eta hauetako batzuk txapelketa internazionaletan parte hartzen dute trebakuntzan eta garapenean hobekuntza bat lortuz).

Garapenaren azken fasean, talentuaren garapena edo trebetasuna behar bezala burutu den edo huts egin duen jakiteko txapelketan emandako errendimendua kontutan hartu ohi da, hau da, kirolariaren garapenaren ebaluazioa egiten duen elementua da txapelketa.

Era honetan, txapelketa kirolariaren heziketaren programazioaren barruan sartu beharko litzateke eta txapelketa ezberdinak aztertuz, lortu beharreko helburuak diseinatzen lagundu beharko liguke. Helburu hauek ikasketaren elementu bihurtzean, txapelketa ez da irakaskuntza – ikaste prozesuaren emaitza bihurtzen, irakaskuntzaren prozesuaren beste zati garrantzitsu bat baizik (Lorenzo et al, 2005).

Sanchezek (2002an) maila goreneko edota maila handiagoko liga batean jokatzek, baita aldi berean maila bereko eta maila altuagoko jokalariekin lehiatzek trebetasunaren garapena ahalbidetzen duen elementu oso garrantzitsu bat bilakatzen dela dio.

Hau dela eta, denboraldian zehar txapelketen zenbakiaren programazio egoki bat antolatzea ezinbestekoa da. Beste era batean esanda, bere egoera eta ingurunea kontutan izanik., urte osoan zehar era koherente batean txapelketa zenbaki nahikoaz hornitu kirolariak.

Adin kronologikoak eragina al du kirolariaren garapenean?

Gazte asko dira adin goiztiar batean kirol adituen potentziala erakusten dutenak; hala ere, oso gutxi dira goi mailara iristen direnak. Honen ondorioz, 1950 eta 1960. hamarkadetan etorkizuneko kirolariak hautemateko lehenengo

ikerketak egiten hasi ziren eta hau gobernu, federazio, klub eta entrenatzaileen kezka izan da (Réginer, Salmela eta Russell, 1993).

Gaur egun gero eta nazio gehiago dira Joko Olinpikoetan urrearen borrokan daudenen lehia. Askok diote maila internazionalera iristeko lehen pausoa ongi egokitutako talentuen identifikazio sistema batetik igarotzea beharrezkoak dela. Horregatik, nazio guztiak ari dira etorkizuneko kirolariak hautemateko programaren bat garatzen talentudun haurrak hautemateko eta eskura dituzten baliabideak haur horietan inbertitzen (Abernethy, 2008).

Talentuen identifikazioa eta identifikatuak dauden kirol eta modalitate anitzetara orientatzea oso prozesu konplexu eta multidimentsionala da. Etapa (edo fasetan) egon ohi da banatuta, adin ezberdinetan ematen da eta epe luzeko entrenamenduez osatzen dira.

Talentuen identifikazioaren antolaketa

Talentuen identifikazio eta hautaketarako ez dago eredu zuzen konkreturik. Kirolaren konplexutasunaren (aurrean ikuspuntu batetik) eta lekuko, probintziako eta nazioaren azpiegituraren arabera izango da (Dimitrić eta Obradović, 2009).

Hau kontutan izanik, urteak aurrera joan diren heinean, kirolaren beste arlo askotan bezala, eboluzio nabarmen bat eman da arlo honetan ere. Historikoki eta geografikoki, talentuen identifikazioan egin diren hurbilketak garapen bat izan dute. Herrialde ezberdinetan eta garai ezberdinetan bakoitzaren ideologia, egoera soziala, finantzari egoera eta politika faktoreen arabera azaleratuz.

Mundu mailako sistema ezberdinak aztertu ondoren sistema bakoitzak ezaugarri ezberdinak kontutan hartzen dituztela ikusi da, baina sistema guztiek dute komunean ezaugarri oso garrantzitsu bat, non sistema guztiak bere baitan kontrolatzen dituen. Beste era batera esanda, talentuak hautatzeko giza baliabideen eta antolaketaren gabezia.

Hortaz, ba al ditugu estatistikoki subjektuen nahikoa datu haur horiek elitara iritsi daitezkeela ziurtatzeko?

Talentuan hautaketari buruz egin dezakegun lehenengo hurbilketa 47. taulan aipatutako taulan laburbildu genezake.

47. taula: Giza baliabide mugatu eta mugagabeak (Krasilshchikov, 2011).

Giza baliabide mugagabe / ugari dituzten herrialdeak	Giza baliabide mugatuak dituzten herrialdeak
Datu eta subjektu anitzak – test espezifiko gutxi	Neurrira egindako talentuen identifikazioa – test zabalak
Selekzio naturala haurrak oso gazte direla	Hasieratik hautaketa zientifikoak
Entrenatzaileak – hautatzaileak	Zientzialariak – hautatzaileak
Zientzialariak - laguntzaileak / begiraleak	Entrenatzaileak – aholkulariak
Test espezifikoak eta hauen balorazioak	Test orokorrak eta hauen balorazioak
Talentuen identifikazioa (TI) kirol edo modalitate konkretu bati begira	Talentuen identifikazioa kirol mota batentzako
Entrenamendu errazak eta sinpleak hasieran	Entrenamendu zentralizatuak, hasieratik

Talentuen identifikazioan egin diren hurbilketak (batez ere entrenamenduen hasierari dagokionez) garai ezberdinetan eman direnez, herrialde nagusien talentuen identifikazio sistemak laburbilduko ditugu.

Garai bateko Sobietar Batasuna:

Garai bateko Sobietar Batasunean eskuartean zituzten giza baliabideak mugagabeak ziren. Hori dela eta, talentuen identifikazio sisteman, espezialki hautaketa prozesua ez zen oso zientifikoa eta nahiago izaten zuten hautaketa naturalago bat jarraitzea. Hala eta guztiz ere, bazituzten hautaketa natural horretara hurbiltzen ziren oinarrizko fitness test batzuk. Eskoletako heziketa fisikoko saioak ere paper garrantzitsua zuten talentuen identifikazio eta garapenean.

Garai bateko ekialdeko Alemania (Alemaniako Errepublika Demokratikoa):

Sobietar Batasunarekin alderatuz, nahiko estilo ezberdina erabili ohi zuten Alemaniako ekialdean, nahiz eta ideologia antzeko arrazoiak izan eta mendebaldeko Alemaniari edozein kirol eta modalitatean irabazteko etengabeko desioa izan.

Oso giza baliabide mugatuak zituztenez, hauen talentuen identifikazio sistema oso era zientifikoan zegoen oinarriturik (oinarrizko gaitasun motorrak neurtzen zituzten testak). Zientzialariek entrenatzaileak eta laguntzaileak gidatzen zituzten. Eskolako heziketa fisikoko saioak, bizimodu osasuntsu bat bultzatzea, familian kirola egiteko ohitura zabala eta kirola egiteko aurretiko jarrera ona izateak, ibilbide distiratsu batekin batera kirolean lorpen bikainak lortzeko aukera ematen zien.

Txina:

Txinan TI sistema oso espezifikoa da. Giza baliabide mugagabeak dituztela kontutan izanik, selekzio naturalean oinarritzen dira talentuak hautemateko. Hala ere, test ugari erabili ohi dituzte ahalik eta faktore gehien kontutan hartuz. Zientzialariak gidatzen dituzte sistema hauek, baina entrenatzaileak hauekin batera era aktibo batean parte hartzen dute (Sobietar Batasunean baino gutxiago).

Australia:

Australiako talentuen identifikazio sistema oso erakargarritzat kontsideratua izan da aditu askoren ustetan, izan ere, Australiako eredia bikain garatutako kirol zientzien segmentuaz baliatzen da eta hautaketa zientifiko orokorrean oinarritzen da. Zientzialari hauek gidatzen dute sistema osoa beraien giza baliabideak mugatuak baitira.

Momentuko errendimenduan oinarritutako errekrutamendua: arrazoi ekonomikoak

Egungo literaturan ez dago talentuen identifikazioen sistemen ezaugarriak era zehatz batean azaltzen dituen informaziorik. Europako ekialde eta mendebaldeko sistemek, profesionalak kirolarien errekrutatze goiztiarrean

kezkatuik zeudela eta oraindik ere daudela erakutsi du. Izan ere, talentudunak identifikatzeko irizpide nagusia ohiko errendimendu motorrean oinarritzen diren aplikazioetan edota arrakasta konpetitiboan daude oinarriturik. Ikuspuntu hau batez ere arrazoi ekonomikoetan oinarritzen da.

Ekonomian oinarritzen diren arrazoi hauek honako ustezkoetan sortzen dira: a) eliteko kirolean arrakasta epe luzeko emaitza baten ondorio da; b) kirol konkretu batean arrakasta lortzeko denbora luzez jasotzea beharrezkoa den prestakuntza nahitaezkoa da; c) entrenamenduen hasiera goiztiarra, arrakasta goiztiarra, parte hartze goiztiarra eta sustapen programen jarraipenak kirolariaren garapena suspertuko dute eta beranduago, epe luzera begira, eliteko kirolean koerlazonatuko da positiboki (Güllich eta Emrich, 2006).

Zenbait ikerlarik jakinaren gainean egindako praktikak eta 10 urteko legeak adin goiztiar baten hasten diren kirolariak beranduago hasten diren kirolariak baino entrenamendu bolumen handiagoa metatu eta, ondorioz, abantaila handiagoa dutela esan badute ere, hainbat muga aurkitu dira arlo honen inguruan.

Maila internazionalera iritsi diren hainbat kirolariaren kasua aztertu ondoren, ikusi da talentuen identifikazio tradizioaletik “denboraz kanpo” entrenatzen hasi diren kirolariak (8-12 urte inguruan), kirol konkretu horretan adin oso goiztiar batetik jaso beharreko entrenamendu espezifikorik gabe Olinpikoak izatera heldu direla, hots, adina ez dela behar – beharrezko baldintza izan (Vaeyens et al, 2009). Era berean, Australiako Kirol Institutuaren arabera, “urrezko erregela” bezala ezagutzen den 10 urteko aldia denbora gutxiagoan gerta daitekeela eta kirol batean egindako entrenamendu espezifikoaren denbora murriztu daitekeela azpimarratzen dute.

Talentuen identifikazio programek oso kasu gutxitan aitortu dute txapeldunak besteengandik bereizten dituzten ezaugarriak, ezta kirolari bat txapeldun bilakatzeko beharrezkoak diren ezaugarriak ere (Geron, 1978). Garai goiztiar batean aparteko talentua duen haurra identifikatzeko zehaztasuna nerabezaroan izango duen errendimenduaren heltze biologikora murriztua dago (Vaeyens et al, 2009).

Heltze biologiko aurreratuagoa duten horiek askotan arrakastatsuagoak dira kirolean nerabe garaian. Gainera, urteko lehenengo sei hilabeteetan jaio diren horiek garaiera aldetik abantaila bat izan ohi dute, baita gazteagoak diren kideen errendimenduari dagokionez ere. Hori dela eta, lehenengoak taldeetan, selekzioan ... hautatuak izateko aukeratuagoak izan ohi dira. Honi “adin erlatiboaren gertakaria” deritzo.

Hala eta guztiz ere, heltze biologiko hau murriztu egiten da eta heldutasunean abantaila hauek guztiz desagertuko dira. Aurrekoarekin jarraituz, heltze goiztiarrari loturik dauden altuera eta errendimendu altuak gutxituko dira, baina gorputzeko masarekin erlazionatutako aldakuntzak, aldiz, jarrai dezake (Malina et al, 2004).

Bloomek 1985ean gazte garaian egindako jarduerak eta bertan izandako garapenak ez zutela kirolari bat elitera iritsiko zela aurrean behar.

Eraginkortasuna: Ikuspegi tradizionala bermatzen duen ebidentzia enpirikorik ez dago

Sistema hauen eraginkortasuna aztertu duten ikerketek kirolari hauek arrakasta lortzeko duten aukera baxua neurritzeko dela ikusi da (Güllich, 2007). Kontu ikuskaritza hauek garai goiztiar batean errekrutatutako haurren portzentaje oso altu batek elitera inoiz helduko ez zela iradoki dute. Beste alde batetik, goi mailako kirolari asko ez dira programa egokien bitartez bermatu. Hortaz, nerabeen errendimenduak, norbanakoaren talentua erakutsi beharrean, bere heltze fisikoak islatzen duen errendimendua erakuts dezake (Button, 2011).

Aurkikuntza hauek badirudi talentuen identifikazio eta hautaketa programek sortu dituzten kezkak baieztatu besterik ez dutela egiten. Geroz eta handiagoa den adostasun batek eredu tradizionalan oinarriturik dauden talentuen identifikazio programek oraindik hazi gabe dagoen jende asko baztertzeko joera duela dio (Abbott y Collins, 2002, 2004; Martindale, Collins, y Daubney, 2005;. Vaeyens et al, 2008).

Garapen arrakastatsua erraztu ditzakeen ezaugarriak

Ikerketek erakutsi dute errendimendua era eraginkor batean ebaluatzea eta helburu errealistak jartzea bezalako portaera psikologikoak garai ezegonkorretan aurrera egiteko oso baliagarriak direla eta gainera, norbera indartu egiten dutela (Kreiner-Phillips eta Orlick 1992, McDonald et al 1995, Morrone eta Pintrich 1997, Schunk, 1990). Kirolariak jokabide psikologikoak erabili ohi dituzte “maila eraginkorrago batera gidatuko dien iragaite mekanismo eta egonkorrago batera eta ondorioz, gizabanako baten potentziala sustengatuko duen kirolaria bilakatzeko” (Abbott, 2002).

Literaturak talentuen kontzeptu tradizionala sinplista dela nabarmentzen du ez baitu izaera dinamiko eta multidimentsionala kontutan hartzen (Garay et al, 1974, Jokl, 1964, Tanner, 1964, Tittel 1965). Honen ondorioz, talentuen birkontzeptualizazio bat nabarmendu zuten eta talentu bat bere izadi multidimentsional eta dinamikoa duen gizabanako bat bezala azaldu zuten. Kirol talentuaren hanpadura honek ez ditu eragin genetikoak baztertzen. Izan ere, jakina da gizabanako baten fenotipoa (karaktere ezberdinen multzoa) bere genotipoaren (genetikaren osaketa) ezaugarriengatik soilik ez dagoela zehaztua. Horregatik, errendimendu on bat izateko entrenamendua oso garrantzitsua da. Jarduera fisikoaren eta genotipoaren arteko erlazioa oso konplexua da eta maila ezberdinetan garatu ohi da (Terrados, Rodas eta Campos, 2004).

Oinordekotasunak genetikak fenotipo jakin batean duen eragina adierazteko balio digu. Gauzak horrela, subjektu bat gurasoengandik jaso dituen geneengatik oso azkarra izateko aukera (“giharren indarraren” ezaugarria) baldintzatuagoa egongo da beste subjektu batek iraupen luzeko lasterketa batean izango duen errendimendua (“erresistentzia aerobikoaren” ezaugarria) baino.

Talentuen Identifikazio Programa tradizionaletik aldentzea

Argi dago “errendimendua” eta “talentuaren” artean bereizketa bat dagoela, baina badirudi talentuen garapenean parte hartzen duten pertsonalaren artean ez dutela oso ongi ulertu. Mundu mailako bikaintasuna

lortu ahal izateko, adin gazteetako maila sakrifikatua egon daiteke, izan ere, adin horietan nabarmentzen diren ezaugarriak eta heldutasunean nabarmentzen direnak ezberdinak izan baitaitezke. Hau heldutasunaren ondorio izan daiteke; hala eta guztiz ere, talentuen identifikazio ereduak une horretan daukaten mailaren arabera oinarritu izan dira.

Hau guztia kontutan izanik, prozedurak bilakaera bat izatea beharrezkoa da eta horrela, momentuko lorpenei erreparatu ordez, entrenatzaileak kirolari gaztearen gaitasunean eragin dezaketen faktoreei atentzio gehiago jarriko diete. Honek epe motzeko ekimenen ezarpenetan aldaketa bat eskatzen du hauek momentuko emaitzetan oinarritzen baitira eta horrela diru publikoaren inbertsioa justifikatzen baitute (Balyi eta Hamilon, 2000; Reid, 2003).

Morrisek 2000. urtean entrenatzaile askok psikologiak paper erabakigarri bat zuela onartzen zutela, eta portaera psikologiko asko entrenatzaileen bitartez sustatu daitezkeela zioen; hala ere, hau gertatzen ez zela aitortu zuen.

Portaera psikologikoarekin batera, lehia motor eta pertzepzio – kognitiboaren garapena

Profesionalek portaera psikologikoak norbanakoen arteko interakzioan funtsezko papera izan dezakeela onartu behar dute (Freeman, 2000).

Ikerketa gehientsuenak espezializazio goiztiarraren eta berantiarraren arteko ezberdintasunak konparatzen aritu diren bitartean (gehienbat ikerketa longitudinalak aurrera eramateko zailtasunaren ondorioz), beste ikerketa batzuk hasierako esperientzia fisikoen onura bermatzen dute, batez ere oinarritzko mugimenduak lantzen dituzten jarduerak eta hauek gero eta koordinazio egitura konplexuagoetan konbinatzeko gaitasuna. Kontzeptu hau hizkuntzen irakaskuntzan erabili ohi den antzeko prozesua da, hau da, lehenik eta behin hitzak eta gero esaldiak irakatsiz.

Zergatik oraindik ere askok ikuspegi tradizionala jarraitzen dute?

Kirolean gero eta gehiago dira behin eta berriz talentuen determinatzaile genetikoak bakarrik kontutan hartzen dituzten identifikazio programa tradizionalak mugaketak dituztela diotenak. Sportscotland, SPARC (Zeelanda

Beria), Sport Englandek esaterako, Australiako “talent search” programa bazterten dute; azken finean, 10 neurri antropometriko estandar (altuera, esaterako), fisiologikoak (abiadura, adibidez) eta errendimenduaren ezaugarriak (atzematea, adibidez) hartzen baitituzte haurren perfilak osatzeko. Ongi saskiratzen duen haur bati esaterako, saskibaloirantz gidatuko diote. Hala ere, jarrera aldaketa hau eman bada ere, nazio hauetako kirol erakunde askok oraindik ere, determinazio unidimentsionalak lantzen jarraitzen dituzte talentuak identifikatzeko garaian. Zeelanda Berriko kirol erakunde nazionalak aurkeztutako txosten batean ikuspegi tradizionala alde batera utzi eta talentuen detekzioan hanpadura handiago bat defendatzen du (Mahon, 2004).

Zoritarrez, honen adibide garbia da Zeelanda Berriko Peter Snell Institutua (PSI), non eskola kirolean “Talent Search” programa jarraitzen duten. Bertan eskola garaian dauden kirolariei prozesu sistematiko baten bitartez maila internazionalen arrakasta izatera hel daitezkeen haurrak identifikatzea du helburu. Nahiz eta PSIk talentua batek gaitasun, fisiko, fisiologiko, psikologiko eta abileziari loturik dauden ezaugarriak behar dituela onartu, zazpi proba estandar eginez haurren perfilak sortzen dituzte. Test hauetan altuera, pisua, besoaren luzera, jauzi bertikalaren errendimendua, eserita daudela saskibaloiko jaurtiketa, 40 metroko sprina eta korrikako errendimendua neurtzen diete.

Erresuma Batuan, gobernuko hainbat agentzia eta kirol erakundeek talentuen identifikaziorako sistema bat erabiltzen jarraitzen dute, non subjektua determinatzaile antropometriko eta fisikoen emaitzen ondorioz, oinarritik nabarmentzen den. Ikuspegi honek aurrera jarraitzen du Gales, Eskozia eta Ingalaterrak “ofizialki” ikuspuntu hau bazterten badute ere.

Zenbait kirolek (arrauna, txirrindularitza eta diskoak, esaterako) fisiologia garbi bat dute edota behar antropometriko garbiak azaltzen dituzte. Beraz, gizabanakoen ebaluaziorako osagarri fisiologiko eta antropometrikoak adierazle baliagarriak izango dira eta kasu batzuetan bere kirolean nabarmentzeko eta uneren batean erabakigarriak ere izan daitezke. Kirolari batek adibidez, uzkurdura azkarreko zuntzak ez baditu, ez da inoiz abiaduralari bezala nabarmenduko. Hala eta guztiz ere, onartu beharra dago ezaugarri fisiko eta

antropometriko askok nerabezaroaren amaierara arte era ezegonkor batean iraungo dutela, gizabanakoaren potentziala aurreikustea zailduz (Borms, 1994). Honen adibide da gaitasun aerobikoa, non gorputz masaren eta heldutasunarengatik erasanda dagoen (Welsman eta Armstrong, 2000).

Nerabezaroan antzeko arazoak sortzen dira gaitasun aerobikoa neurtzeko garaian, izan ere, ezaugarri metaboliko garrantzitsuak sostengatzen dituzten energiak ere hazkuntzaren eraginarekin loturik daude. Heldutasunera iritsi direnei ebaluazio fisiko bat egitean ere arreta jarri beharra dago izaera fisikoari, batez ere, ingurugirora egokitzeko duen gaitasunari eta ustekabeko erronkei aurre egiteko gaitasunari (Holt eta Dunn, 2004).

Koordinazioa eta oreka bezalako gaitasun motor orokorreari esker, badirudi haurrak beraien garapeneko lehenengo faseetan parte hartze handiago bat izan ezker, etorkizunean mesedegarri izango zaiela. Zoritxarrez, kirol talentua bermatzeko asmoz, kirol konkretu batera bideratzeko joerak diziplina ezberdinen arteko transferentzia oztopatzen du. Baina hurrei hainbat kirol probatzeko aukera debekatzen badiegu etorkizunean eliteko kirolariak izango diren haurren zenbakia gehiago murrizten ari gara. Haurrak kirol ezberdinak esperimintatzeko eta gaitasun motor ezberdinak adin goiztiar batean praktikatzeko aukera murriztuz gero, bakarkako indarrak edota aurrerago izango dituen etapetara transferitzeko gaitasuna saihestuko diegu (Button, 2011).

Ondorioz, kirol talentuak kontzeptualizazio berri bat behar du talentuen identifikazio prozesuak beteagoak izateko eta bere izaera multidimentsional eta dinamikoagoa izan dadin. (Button, 2011). Hala ere, loturarik gabeko ikuspegi hau badago ere, ebidentziek prozesu hau era oso motel batean jazotzen ari dela diote.

Talentuen identifikazio eta promozioan bide berriak

Kirol olinpiko batzuetan elite mailan arrakasta izateko zenbait saiakera aipatu ditugu: 1) oso adin goiztiarrean kirol hori praktikatzen hastea ez da beharrezkoa; eta 2) Adin berandu xamar batean posible dela kirolez aldatzea eta berehala kirol bikaintasuna lortzea. Are gehiago, gaur egun, arrakasta

Olinpikoaren kopuru bat “talentuen trukaketaren” ondorio da, hau da, eliteko kirolean kirol batetik besterako trantsizioak posible direla argudiatzen duten kasuak badaude (Gulbin, 2008).

Pertzepzio hauek profesionalak estrategia berriak sustatu eta esploratzera estimulatu dituzte. Erakunde mailan, honek talentuen identifikazio programa berriak sortzea ekarri du “heldutasunean egindako talentu identifikazio programak” edota “talentuen birziklatze programak” bezala.

Erresuma Batuko talentuen transferentzia programa

Kirolariak birziklatzearen alorra oso gutxi ikertua izan da. Kirolarien trantsizioa antzeko kirolen artean eman izan da, hots, gimnasiatik antzeko ezaugarriak dituzten kirolekara adibidez (Atenas 2004ko Joko Olinpikoetan uretako jauzietako emakumeen finalean 12 partaideetatik 10 gimnasiatik eratorria zen).

2003an Erresuma Batuko kirol erakundea (UK Sport) EISarekin (Ingalaterrako Kirol Institutua) elkarlanean, Londreseko Joko Olinpikoei begira, kirolariei deialdi bat egin zieten beraien hasierako kirolek beste kirol berri batera transferentzia bat egiteko. Bertan erretiraturik zeuden gimnastak gonbidatu zituzten beraien gaitasun azkarrak tranpolinera transferitzeko asmoz.

Kirolari hauek kirolari ohiak zirenez, ohiturik zeuden elitean behar – beharrezkoak diren eguneroko entrenamendu eta sufrimendura. Hauetariko batzuk Londreseko Joko Olinpikoetara heldu ziren eta programa honen arrakasta ikusi eta gero, beste kirol batzuekin ere frogatzen hasi dira (Krasilshchikov, 2011).

Talentuen hautaketan testak beharrezkoak al dira?

Gaur egun talentuen hautaketa prozesuan oso erabiliak diren test asko ezagutzen dira. Test hauetan gaitasun motorrak eta gaitasun fisiokoak aztertzen dira eta oso gutxik alderdi fisiologiko eta soziologikoak aztertzen dituzte (Abbot & Collins, 2004). Gaitasun motor eta gaitasun fisikoen ebaluazioaren artean honako helburu hauek aurki daitezke. a) Haur edo gaztearen gaitasun fisiko eta motorra entrenamendu programa baten fase

ezberdinetan – prestaketa, txapelketa eta trantsizioan (Falk et al., 2004; Reilly et al., 2000). b) haur edo gaztearen etorkizuneko potentziala jakin ahal izateko (Lidor, Fakl et al., 2005; Spamer & Coetzee, 2002) eta c) haur horiek motibatze eta gogorrago lan egitera bultzatzeko beraien gaitasun pertsonala hobetzeko asmoz (Morrow et al, 2005).

Entrenatzaileek honelako testak erabiltzean, zenbait faktore oso kontutan izatea komeni da, izan ere, test hauen baliagarritasunean hutsuneak aurki daitezke bai jendetza, entrenamenduak, baita ingurugiro aldetik ere (Hackfort, 2006). Oso garai goiztiar batetik kirola egiten hasten diren haurrak askotan ez dira bere adinerako egokituta dagoen heldutasunera iritsi biologikoki zein psikologikoki. Beste batzuk, ordea, behar baino azkarrago iristen dira heldutasun biologiko zein psikologiko horretara eta honek talentu hautaketan guztiak aukera berdinen aurrean ez aritzea dakar.

Hau guztia kontutan izanik, entrenatzaileek honelako testak egiten dituztenean haurren ezaugarriak kontutan izatea oso beharrezkoa da. Test hauetan gaitasun motor eta fisikoak bilatzen direnez, jauziak, korrika egitea eta jaurtiketak bezalako jarduerak egiten zaizkie beraiei ariketa ezagunak edota errazagoak egiteko asmoz. Banakako kiroletan egiten diren testetan haurrak testak banan – banan egin ohi dituzte.

Oso garrantzitsua da kontutan izatea test hauen oinarria pertsonen erlazio dinamikoan, egin beharreko jardueran eta jarduera bete behar den ingurugiroan dagoela. Hala ere, entrenatzaile batek gaitasun motor eta fisikoak ebaluatzeko aukeratzen duen testa egiterako orduan, erlazio hauen jakitun izan beharko luke (beraien adin biologiko eta kognitiboa) eta ingurugiroa (bakarkako edo taldekako kirol batean oinarrituta). Faktore hauek guztiak, kontutan izan beharko lirateke gero ondorio egokiak jaso ahal izateko. Entrenatzaile edo hautatzaile askoren kezka ea honelako testak beraien talentu hautaketarako baliagarriak izango diren jakitea izan ohi da. Edonola ere, entrenatzaile eta kirolarien benetako kezka ea test horrek jasotzen dituen datuak hobekuntza bat ekarriko dien izan ohi da.

Jarraian honako helburu hauek kontutan izango dira: 1) hainbat testen erabilera eta talendunen eta talentugabeen gaitasun fisiko eta motorrak ikertu

ostean, haurren talentu hautaketa hasteko adina eztabaidatzea. 2) ikerketa enpiriko nabarmenenak hartu eta onurak eta mugak berrikusi, eta 3) entrenatzaileek erabili ohi dituzten bateria test hauen maiztasuna murrizteko justifikazioa.

Kirolean parte hartze goiztiarra: Ekialdeko eta mendebaldeko kasuak

Garai bateko Sobietar Batasunean kirolarien entrenamendu eta hautaketan inguruan zeuden teoriek, (Bompa, 1999; Matveyev, 1981; Zatsiorky, 1995) talentu hautaketan eta honekin erlazionaturik dauden prozesuetan – talentuen identifikazioa, selekzioa eta garapea – eliteko kirolean oinarriturik egon behar zela azpimarratzen zen. Hitz gutxitan, talentuen hautemateak oraindik kirol praktikatan ez duen haur bat bilatzean datza eta talentuen identifikazioa, berriz, kirol konkretu batean dagoen haurren artean dohain bereziak dituen eta elitera hel daitekeen hori identifikatzean datza (William and Reilly, 2000).

Garai bateko bloke sobietikoak berotasun handiz hartu zituzten teoria hauek eta era honetan munduko errekor asko eta hainbat kirolean txapeldun olinpiko asko lortu zituzten. Teoria hauek agenda kultural, hezitzaile eta politikoak betetzen zituzten eta eliteko kirolariak beraien politika nazionala mantentzeko erabili ziren.

Amerikako Iparraldean, talentuen hautaketa eta garapen goiztiarraren eredu ezberdinak erabili zituzten (Bloom, 1985; Côté, 1999). Mendebaldeko eredu hauek, lehenengo etapatan ongi pasatzeko asmoa bultzatuz kirol edota jardueraren hautaketa libreagatik bereiztu ziren.

Ekialdearen eta mendebaldearen ezberdintasun bat talentuaren hautaketa eta garapen goiztiarrean aurkitzen da. Ekialdeko ereduan, talentuen hautaketa eta identifikazioan zentratzen dira eta mendebaldeko ereduan, berriz, talentuaren garapenari garrantzia gehiago ematen diote (Durand – Bush et al. 2001); Martindale, Collins eta Daubney, 2005). Hala eta guztiz ere, arduradun politikoek talentuen identifikazio eta garapenean hartu duten ikuspuntua alde batera utzita, gazteen, entrenatzaileen eta askotan hauen gurasoen ikuspegiak

aurrerapenen informazioaren atzeraelikadura eta batez ere programa horien barruan aurrera egiteko duten ahalmena eskatu ohi dute.

Saltin (2007an) talentuen identifikazio eta garapenean murgildurik zeuden profesionalak funtsezko alor hauek gogoan hartzea beharrezkoa zela aipatu zuen. Lehenik eta behin, kirola jarduera dibertigarritzat hartu behar dute haurrak. Bigarrenik, haurraren heltze biologikoa garapenaren lehenengo faseetan kontutan izatea beharrezkoa da. Hemen Saltinek nerabezaroan indarreko eta egokitzapeneko entrenamenduak eraginkorrak ez direla azpimarratzen du. Hortaz, garai honetan heziketa espezifikoa gaitasun motorren lorpena bideratu behar dela dio. Gihar masaren (indarraren) eta gaitasun anaerobiko eta aerobikoak nerabezaroa bukatu ondoren lantzea komeni da. 48. taulan hau oso argi azaltzen da.

48. taula: Kirol errendimendua hobetzeko alor ezberdinenetan hanpadura (Lidor et al. 2009)

	Nerabezaro aurretik	Nerabezaroan	Nerabezaro ondoren
Gaitasun motorrak	+++	++	+
Gihar masa (indarra)	-	+	+++
Gaitasun anaerobikoa	-	+	++
Gaitasun aerobikoa	+	+	+++
Hanpadura handia +++, hanpadura normala ++, hanpadura txikia +			

Proba fisikoen itxura: Fisiko, fisiologiko, motor eta abileziaren osagarriak

Literaturan haurren garapenaren lehenengo faseetan gaitasun multifazetikoak neurtzen dituzten hainbat proba aurki daitezke. Hauen artean aurkitzen dira proba fisiko, fisiologiko, motor eta abileziaren osagarriak (Brown, 2001; Gore, 2000). Izendapen ezberdinekin aurki bagenitzake ere, hauen helburu nagusia gaitasun fisikoak (erresistentzia, abiadura eta indarra), motorrak (oreka, koordinazioa eta kinestesia) eta kirol konkretu batean duten abileziak neurtu ohi dituzte.

Test batzuetan gaitasun fisiologiko eta gaitasun motorren arteko dikotomia garbia da; hala ere, beste batzuetan hauek ez dira hain garbi

bereizten. Adibidez, zutik egiten den luzera jauziak hanketan duten potentzia esplosiboa neurtzea du helburu (Kirby, 1991; Strand eta Wilson, 1993) eta test baterietan oso erabilia izan den proba izan da (Lidor, Herhko, Bilkevitz, Arnon eta Falk, 2007; Williams eta Reiley, 2000). Haatik, urrutien jauzi egiteko asmoz, pertsona batzuk eskuak era zehatz batean mugitzen dituzte edo gorputz enborra tolesten dute zentimetro batzuk irabazteko helburuarekin. Honek, proba hau ongi egiteko abilezia minimo bat beharrezkoa dela erakusten du.

Talentuen identifikazio eta garapen goiztiarrean gaitasun fisikoak neurtzen dituzten proben erabilera: Proba espezifikoak onurak eta mugaketak

Jarraian, adin goiztiarrean talentuen identifikazio eta garapenerako egin ohi diren proba fisikoen hiru onura eta lau mugaketa aipatuko ditugu.

Alde batetik, 1) kirolariaren gaitasunez hornitu gaitzke bere garapena epe luzeko programa osoan zehar era eraginkor batean kontrolatu ahal izateko. Informazio honen erabilera egokiak lorpen handiagoak lortzeko motibazioa ere izan daitezke; 2) lortutako emaitzei esker, entrenatzaileei programa hezitzailea era eraginkor batean planifikatzeko aukera emango die; 3) test hauetan lortutako emaitzei esker, elitera irits daitezkeen kirolarien arau eta irizpideak garatu daitezke.

Beste aldetik, 1) gaitasun fisikoak talentuen identifikaziorako alderdi bat besterik ez dira eta test psikologiko eta soziologikoak ere eraginkortasuna neurtzeko erabili beharko lirateke (Abbott eta al. 2004; Durand – Bush et al. 2001; Williams et al. 2000); 2) gaitasun kognitiboak ebaluatzen dituen proben gabezia dago. Hemen, aurreratzea, erabakien hartzea eta arazoak erabakia hartzea sartuko lirateke (Williams, 2000); 3) gaitasun fisikoen proba ia guztiak bakarka egin ohi dira. Hortaz, taldeka egiten diren kirol edo modalitateetan eskas gera daitezke; 4) Gaitasun probak normalean subjektua deskantsaturik dagoela egin ohi dira. Alderdi honetan, nekeak emaitzetan eragina izan dezakeela frogatu da, izan ere, nekeak sistema zentralerako prozesuei eragiten die eta hauek informazioa jasotzerakoan eta mugimendua hastean eragina izan dezakete (Pack, 1974). Neke handia ematen den portaeratan, hau da, indarra, erresistentzia eta mugimendu azkarrak ematen diren portaeratan, eragina izan dezake. Beraz, entrenatzaileek kirolaria deskantsaturik dagoela zein nolako

emaitzak lortzen dituen kontutan izateaz gain, nekaturik dagoela zein emaitzak lortzen dituzten kontutan izan beharko lituzkete.

Testak bai ala ez?

Lehenik eta behin, entrenatzaileak talentuen identifikazio eta garapenerako gaitasun probak mugatu beharko lituzkete, batez ere nerabezaro aurretik. Bigarrenik, entrenatzaile eta neurketa eta ebaluazioan espezializaturik dauden ikerlariak kooperazioz lan egin beharko lukete batera test hauek hobetzeko asmoz.

Egia da test hauek entrenatzaileak lagundu ditzakeela bere kirolarien gaitasun fisikoak ezagutzeko. Jasotako emaitzekin talentua era eraginkor batean ebaluatu daiteke, baita hauen mugak gainditzeko programa egokiak sortzeko ere balio dezake. Gaitasun fisikoen test hauek kirolarien eta entrenatzaileen arteko feedbacka hobetzeko asmoz ere egin daitezke eta feedback hau alderdi hezitzaile bezala erabil daiteke. Era honetan, aurretik ezarritako epe motz zein luzeko helburuak lortu diren ala ez ikus daiteke.

Hala ere, talentuen identifikaziorako auresan ditzakeen balioak ziurtatzen dituen ebidentzia nahikorik ez dira aurkitu. Aurretik esan bezala, proba hauek eskaintzen dituzten mugaketak arrakasta zehaztasunez auresateko gaitasuna txikiagotzen du. Gainera kirol batean arrakasta izateak hainbat faktoreen menpe aurkitzen dela onartu dute askok.

Beraz, test hauen erabilera murriztea proposamen bat da. Bigarren proposamena, egungo testen hobekuntza bati lotua dago. Test hauek egoera errealetara gehiago hurbiltzea eskatzen dute une oro informazio zuzena eta erabaki zuzenak hartzen ikasteko.

Amaitzeko, entrenatzaileak test hauek dituzten onura eta mugaketaz jakitun izan beharko liriateke (Lidor et al. 2009). Gaitasun fisikoak eta abilezia maila hauek ebaluatzeko garaian, ikuspuntuen erlazio, egin beharreko zereginak eta zeregin hauek egiten diren lekuak entrenatzailearengatik oso kontuz aztertuak izan beharko liriateke

Testuinguruaren beste faktore batzuk

Entrenatzeko erraztasunak izatea edo nazio edota zonalde zehatz baten bizitzeak eragina izan dezake kirol konkretu batean kirolariak sortzeko.

Egoera batzuetan, instalazio egokiak aurkitzeko, kirol batzuetako ekipamendu espezifikoak eskuratzeko, edota entrenatzaile adituekin aritzeko, kirolariari esfortzu handiagoa egitea tokatuko zaie. Kontutan izateko beste ardura bat familiak eskaini dezakeen laguntza ekonomikoa izango da. Zenbait kirolean ordainketa ekonomikoa garrantzitsuak egitera behartuak egoten dira eta biztanleriaren parte hartze murriztagoa suposatzen du.

Kirol lesioak ere kirolariaren garapenean zerikusi handia dute. Kirol bizitzan lesio gutxi izateak edota hauetatik azkar sendatzeko gaitasunak maila fisikoaz gain, psikologikoan ere, urteetan zehar erabakigarriak izango dira.

Aukera hauek guztiak kirolari aditu bat garatzean eragina izango dute. Ikerkuntzak, alderdi honetan, aurrerakuntzak lortu beharko lituzke kirolarien garapenaren eragina aztertzeko. Entrenamenduen sistemen aurrerakuntzak guztien erantzukizuna da eta hartzen diren portaeretan, prestakuntzan, inplementazio eta prozesu guztiaren kontrolean du bere oinarria.

ONDORIOAK

Kapitulu hau errebisioaren azken hiru atalez osatua dago. Bertan, errebisioan zehar atera ditugun ondorioak, etorkizuneko hipotesiak eta ikerketa lerroak proposatzen ditugu.

Ondorioak

Lan honen hasieran, domina kopuruari dagokionez emankortasun handiena duten diziplina olinpikoak atletismoa, ur kirolak eta txirrindularitza direla ikusi ondoren, diziplina hauetan domina gehien irabazten dituzten nazioak dominen zerrenda osoa irabazten dutenekin bat datorrela ikusi da. Honek kirol hauetan dominak irabaztea zeinen garrantzitsua den adierazten du, izan ere, domina kopuru totalaren ehuneko handi bat hiru kirol hauetan lortutako emaitzen ondorio da.

Kirol arrakasta izateko eta etorkizunean arrakasta hau ziurtatzeko asmoz, nazio guztiek beren talentuen identifikazio eta hautemate programak garatu dituzte.

Asko dago idatzia talentuen identifikazio eta hautemate programei buruz, baina autore askok onartu dute ez dagoela arrakasta ziurtatzen duen talentuen identifikazio programarik; horregatik, nazio bakoitza bere sistema propioaz baliatzen da.

Lehenengo ikerketak 50. hamarkada aldean hasi ziren eta garai bateko Europa ekialdeko herrialdeak izan ziren arlo honetan aitzindari. Hauek giza baliabide mugagabeak zituztela aprobetxatuz, gaitasun motorretan oinarritutako test batzuk egiten zizkieten haurrei eta bertan identifikatzen zituzten talentuak.

80. eta 90. hamarkaden inguruan, entrenamenduari eskaini beharreko gutxieneko denbora zehaztu zen, baina oraindik ere eliteko kirolariak talentuen identifikazioko programen oinarria izaten jarraitzen zuten, beste era batera esanda, talentuak identifikatzeko eliteko kirolarien ezaugarriak kopiatzen saiatzen ziren.

Denborak aurrera egin duen heinean, sistema honek akatsak dituela onartu da eta “botton – up” ideiak gero eta garrantzi handiagoa duela ikusi da. Bertan, haurrak dira sistemaren oinarria eta haur guztien gainean nabarmentzen den hori jotzen dute aditutzat.

Azken ideia hau nahiko onartua badago ere, asko dira oraindik ere sistema tradizionalan oinarritzen direnak. Erakunde hauetako askok gaitasun motorren abilezian oinarritzen dira soilik eta gaur egun ikusi da elitera heltzeko gaitasun motor on bat izateagatik soilik ez dela kirolari bat elitera heltzen.

Gaitasun motorrez gain, beste hainbat testuinguru faktore kontutan hartzea beharrezkoa da. Hauen artean faktore psikologikoak, fisikoak, antropometrikoak eta ingurugiroa (entrenatzailea, lagunak, familia) aurkitzen dira. Sistema hauetan, entrenamendu espezifikokoak bideratu beharrean hurrei bere hazkuntza prozesua mantentzen uzten die eta kirol konkretu batean espezializatu beharrean hainbat kirol eta jarduera praktikatzeari esker multidimentsionalitatea lantzen dute.

Talentuak identifikatzeko garaian beste ikuspuntu eztabaidagarria kirol konkretuaren espezializazioa noiz hasi izan da. Garai bateko ekialdeko herrialdeen espezializazio hau zenbat eta lehenago hasi, orduan eta emaitzak goiztiarragoak izango zituztela pentsatzen zuten. Beraz, hurrekin oso garai goiztiarretatik entrenamendu oso espezifikokoak egiten hasi ziren.

Geroz eta adin goiztiarrago batean espezializatzeko ideia honek hurrei egindako testak oso adin goiztiarrean egitea ekarri du eta garai honetan haurrak oraindik hazten daudela kontutan izanik, heltze biologiko aurreratuagoa duten haurrak identifikatzeko balio izan du. Hemen heltze berantiar bat duten haur aditu asko baztertu direla ikusi da eta hautatuak izan diren horien artean, heldutasunera iristean hasieran suposatutako talentu hori ez dutela ikusi da eta ondorioz, elitera iritsi ez direla ikusi da. Honek entrenamendu espezifikoko oso luzea beharrezkoa ez dela erakusten du, hau da, nerabezaroaren amaiera aldean entrenamendu espezifikoeekin hastea nahikoa dela.

Amaitzeko eta azken ideia honi jarraituz, zenbait nazio hasi dira talentuen birziklapen programak sortzen eta programa hauek izan dituzte

lehenengo kirolari Olinpikoak. Bertan adin goiztiarrean landutako multidimentsionalitateari esker, kirol batetik besterako egokitzapena azkarragoa izan dute.

Etorkizuneko hipotesi eta ikerketa lerroak

Errebisio honetan izandako esperientziaren arabera, proposamen batzuk egiteko moduan gaudela uste dugu.

Emankortasun handiena duten diziplina olinpikoetako talentu hautemate prozesuan erabiltzen diren programen errebisioa egiterako garaian, konturatu gara arlo konkretu honi buruz ez dagoela ezer idatzia eta ezinezkoa izan zaigu gure gai konkretuari buruzko artikulurik aurkitzea. Hori dela eta, lehenik eta behin domina kopuruari dagokionez zeintzuk diren kirol arrakastatsuenak begiratu behar izan dugu, ondoren kirol hauetan egiten diren talentuen identifikazio programak behatu ahal izateko. Hortaz etorkizunera begira eta duen garrantzia ikusirik, arlo hau kontutan izateko modukoa dela uste dugu.

Gainera, talentuen identifikazio programak orokorrean oinarriturik daudela ikusi dugu eta ez dira kirol konkretu batean zehaztu.

Amaitzeko, gai honek duen garrantzia aztertu ondoren, etorkizunean kirol arrakastatsuenen talentuen identifikazio programen inguruan ikerketa bide berriak sortu behar direla uste dugu, baita haurren ingurunekeo baliabideen laguntzan ere (entrenatzaileak, familiaren eragina, txapelketa, entrenamenduak eta testuinguru faktoreak).

BIBLIOGRAFIA

1. Abernethy, B. (2008). Introduction: Developing expertise in sport – how research can inform practice. In V (Eds.), *Developing sport Expertise (1 – 14)*. Abingdon: Routledge.
2. Abernethy, B., Côté, J., Baker, J. (2002). Expert decision making in team sport. Report to the Australian Sport Commission. *Brisbane. University of Queensland*.
3. Abbott, A., Collins, D. (2002). A theoretical and empirical analysis of a “state of the arte” talent identification model. *High Ability Studies, (13)*, 157 – 178.
4. Abbott, A., Collins, D. (2004). Eliminating the dichotomy between theory and practise in talent identification and development: considering the role of psychology. *Journal of Sports Sciences, (22)*, 395 – 408.
5. Abbott, A., Collins D., Martindale, R., Sowerby, K. 2002. Talent identification and development: an academic review. *Report for SportScotland by the University of Edinburgh. SportScotland, Edinburgh*.
6. Balyi, I., HAMILON, A. (2000). Key to success: long – term athlete development. *Sport Coach Autumn. 30 – 32*.
7. Barker, J., Côté, J., Abernethy, B. (2003). Learning from experts Decision – makers in sport. *Research Quarterly for Exercise and Sport (74)*, 342 – 347.
8. Bloom, B. S. (1985). Developing talent in young people. New – York: Ballantine.
9. Bompa, T. (1999). Periodization: The theory and methodology of training (4th ed.). *Champaign, IL: Human Kinetics*.
10. BORMS, J. (1994). From theory to practise: talent identification and selection – the future for British Governing Bodies. *BOA CAG Seminar, London*.
11. Brown, J. (2001). Sport talent: How to identify and develop outstanding athletes. *Champaign, IL: Human Kinetics*.

12. Button, A. (2011). Aims, principles and methodologies in talent identification and development. *Performance Psychology*, 9 – 29
13. CASPe (Interneteko helbidea), (2005). 10 preguntas para ayudarte a entender un estudio cualitativo
<http://redcaspe.org/drupal/?q=node/29> 2015/06/29an errekeratua
14. Chaveau, M. (1999). The Key Factors to the preparation of elite athletes. *International Forum on Elite Sport*.
15. Coe.es (web orria)
<http://www.coe.es/web/EVENTOSHOME.nsf/MONOGRAFICO2012?OpenForm&Query=Consulta=evento=Londres+2012@-@818=> =
2015/02/25ean errekeratua
16. Coe.es (web orria)
<http://www.coe.es/web/EVENTOSHOME.nsf/MONOGRAFICO2012?OpenForm&Query=Consulta=evento=Pek%C3%ADn+2008@-@656=> =
2015/02/25ean errekeratua
17. Coe.es (web orria)
<http://www.coe.es/web/EVENTOSHOME.nsf/MONOGRAFICO2012?OpenForm&Query=Consulta=evento=Atenas+2004@-@604=> =
2015/02/25ean errekeratua
18. Cortés, V., Fernández, A., Moreno, A. (2002). Estudio descriptivo de la evolución de jóvenes atletas participantes en el programa de detección de talentos de la Real Federación Española de Atletismo. *Rendimiento deportivo*. N°3.
<http://www.rendimientodeportivo.com/N003/Artic014.htm> 2015/02/04an errekeratua
19. Côté, J. (1999). The influence of the family in the development of talent in sport. *The sport psychologist* (13), 395 – 417.
20. Cué Brugueras, M., Díaz Alonso, G., Díaz Martínez, A. G., Valdés Abreu, M. (1996). El artículo de revisión. *RESUMED*, 9 (2), 86 – 89.
21. Čustonja, Z., Škorić, S. (2011). Winning medals at the Olympic Games – Does Croatia have any chance? *Kinesiology* 43. 1:107-114

22. Dimitrić, G. Obradović, B. (2009). Models of talent identification in swimming. *1st International Scientific Conference: Exercise and Quality of life. Faculty of Sport and Physical Education University of Novi Sad, Serbia.*
23. Durand – Bush, N., Salmela, J. H. (1996). Nurture over Nature: A new twist to the development of expertise. *Avante, 2, n°2, 87 – 109.*
24. Ericsson, K. A., Krampe, R., Tesch – Römer, C. (1993). The role of deliberate practise in the acquisition of expert performance. *Psychological review (100), 363 – 406.*
25. Faber, I., Nijhuis – Van der Sanden, R., Oosterveld, F. (2011). *A first step to an evidence – based talent identification program in the Netherlands; a research proposal.* The 12th ITTF Sports Science Congress.
26. Falk, B., Lidor, R., Lander, Y., Lang. (2004). Talent identification and early development of elite water-polo players: A 2 year follow – up study. *Journal of Sports Sciences, (22), 347 – 355.*
27. Freeman, J. (2000). Teaching for talent: Lessons from the research. In: van Lieshout, C. F. M., Heymans, P. G. (Eds.). *Developing talent across the life span. Psychology Press, Hove, Sussex, 231 – 248.*
28. Geron, E. (1978). Psychological assessment of sport giftedness. In U. Simri (Ed.), *Proceedings of the International Symposium on Psychological Assessment in Sport (216 – 231). Nentaya, Israel: Wingate Institute.*
29. Gore, C. J. (Ed). (2000). Physiological test for elite athletes – Australian Sport Commission. *Champaign, IL: Human Kinetics.*
30. Guirao – Goris, J. A., Olmedo Salas, A., Ferrer Fernandis, E. (2008). El artículo de revisión. *Revista Iberoamericana de Enfermería Comunitaria, 1, (1), 1 – 25.*
31. Gulbin, J.(2008). Identifying and developing sporting experts. In D. Farrow, J. Barker, & C. MacMahon (Eds.). *Developing sport exercise (66 – 72). Abingdon: Routledge.*
32. Güllich, A. (2007). Training – Support – Success: Control – related assumptions and empirical findings. *Saarbrücken: University of the Saarland (Germany).*

33. Güllich, A., Emrich, E. (2006). Evaluation of the support of young athletes in the elite sport system. *European Journal for Sport and Society*, 3 (2), 85 – 108.
34. Güllich, A., Philippaerts, R., Vaeyens, R., Warr, C. R. (2009). Talent identification and promotion programmes of Olympic athletes. *Journal of Sports Sciences*, 27 (13): 1367 – 1380
35. Hackfort, D. (2006). A conceptual framework and fundamental issues for investigating the development of peak performance in sports. In D. Hackfort & G. Tenenbaum (Eds.), *Essential processes for attaining peak performance (10 – 25)*. Aachen: Meyer & Meyer Sport.
36. Holt, N., Dunn, J. (2004). Toward a grounded theory of the psychological competencies and environmental conditions associated with soccer success. *Journal of Applied Sport Psychology (16)*, 199 – 219.
37. Icart Isern, M. T., Canela Soler, J. (1994). El artículo de revisión. *Enferm Clin.* 4 (4), 180 – 184.
38. Irurtia A, Iglesias X. (2009). La formación de los jóvenes deportistas: de la detección del talento a la intervención federativa. *Revista IN & EF*.
39. Jokl, E. (1964). Essay on medical sociology of sports. In: Thomas, C. L. (Ed.). *Medical sociology and cultural anthropology of sport and physical education*. Charles, C. Thomas, Springfield, IL 65 – 71.
40. Kirby, R. F. (1991). Kirby's guide to fitness and motor performance test. *Cape Girardeau, MD: BenOak*.
41. Krasilshchikov, O. (2011). Talent recognition and development – elaborating on a principle model. *International Journal of Development Sport Management*, Vol. 1 (1).
42. Kreiner – Phillips, K., Orlick, T. (1992). Winning after winning: the psychology of ongoing excellence. *Sport Psychologist (7)*, 31 – 48.
43. Lidor, R., Fakl, B., Arnon, M., Pilz – Burstein, R. (2005). Measurement of talent in team - handball: The questionable use of motor and physical test. *Journal of Strength and Conditioning Research*, (19), 318 – 325.

44. Lidor, R., Hershko, Y., Bikevitz, A., Arnon, M., Falk, B. (2007). Measurement of talent in volleyball players: 15 month follow up of elite adolescent players. *The Journal of Sport Medicine and Physical Fitness*, (47), 159 – 168.
45. Lorenzo Calvo, A. (2001). Hacia un nuevo enfoque del concepto del talento deportivo. *Revista de entrenamiento deportivo*, Tomo 15, Nº2, 22-33.
46. Lorenzo Calvo, A. (2003). ¿Detección o desarrollo del talento? *Apunts: Educació Física i Esports*. Nº 71, 23 – 28.
47. Lorenzo, A., Sampaio, J. (2005). Reflexiones sobre los factores que pueden condicionar el desarrollo de los deportistas de alto nivel. *Apunts: Educació Física i Esports*, Nº 80, 63 – 70.
48. Lorenzo, A., Jiménez, S. Lorenzo, J. (2014). ¿Son realmente eficaces los programas de detección de talentos deportivos? Nuevos horizontes para su diseño. *Revista alto rendimiento*. 13 (1).
49. Malina, R., Bouchard, C. (1981). Growth, maturation and physical activity. *Champaign: Human Kinetics Books*.
50. Malina, R. M., Bouchard, C., Bar – Or, O. (2004). Growth, maturation and physical activity (2nd edn.). *Champaign, IL: Human Kinetics*.
51. Mahon, T. (2004). Linking promise to the podium: talent identification and development (TID) in New Zealand. A Report to SPARC's Board from the TID Taskforce into potential. New Zealand Academy of Sport, Wellington.
https://secure.ausport.gov.au/_data/assets/pdf_file/0003/557058/Linking_promise_to_the_podium_-_talent_identification_and_development_TID_in_New_Zealand.pdf
2015/05/15ean errekuperatua
52. Martindale, R. J. J., Collins, D., Daubney, J. (2005). Talent development: A guide for practise and research within sport. *Quest*, (57), 353 – 375.
53. Matveyev, L. (1981). Fundamentals of sports training. Moscow. Progress.

54. McDonald, J., Orlick, T., Letts, M. (1995). Mental readiness in surgeons and its links to performance excellence in surgery. *J. Pediatr. Orthop.* (15), 691 – 697.
55. Medalspercapita.com (web orria)
<http://www.medalspercapita.com/#medals:2012> 2015/05/18an errekuperatua
56. Meyers, M.C., van Woerkom, M., Dries, N.(2013). Talent – innate or acquired? Theoretical considerations and their implications for talent management. *Human Resource Management Review* 23 305–321.
57. Morrone, A. S., Pintrich, P. R. (1997). Achievement motivation. In: Bear, G, Minke, K., Thomas, A. (Eds.). Children´s needs II: psychological perspectives. *National Association of School Psychologists, Whashington, DC, 387 – 395.*
58. Morrow, J. R., Jackson, A. W., Disch, J. G., Mood, D. P. (2005). Measurement and evaluation in human performance (2nd ed.). *Champaign, IL: Human Kinetics.*
59. Olympic.org (web orria)
<http://www.olympic.org/london-2012-summer-olympics> 2015/02/20an errekuperatua
60. Olympic. Org (web orria)
<http://www.olympic.org/olympic-results/london-2012/athletics> 2015/02/20an errekuperatua
61. Olympic.org (web orria)
<http://www.olympic.org/olympic-results/london-2012/swimming> 2015/02/20an errekuperatua
62. Olympic .org (web orria)
<http://www.olympic.org/olympic-results/london/cycling-track> 2015/02/20an errekuperatua
63. Olympic .org (web orria)
<http://www.olympic.org/olympic-results/beijing-2008/athletics> 2015/02/21ean errekuperatua

64. Olympic .org (web orria)

<http://www.olympic.org/olympic-results/beijing-2008/swimming> 2015/02/21ean errekueratua

65. Olympic .org (web orria)

<http://www.olympic.org/olympic-results/beijing-2008/cycling-track> 2015/02/21ean errekueratua

66. Olympic .org (web orria)

<http://www.olympic.org/olympic-results/beijing-2008/cycling-track> 2015/02/21ean errekueratua

67. Olympic.org (web orria)

<http://www.olympic.org/content/results-and-medalists/gamesandsportsummary/?sport=32588&games=2004%2f1&event=> 2015/02/21ean errekueratua

68. Pack, M. (1974). Effects of four fatigue levels on performance and learning of novel dynamic balance skill. *Journal of Motor Behaviour* (6), 191 – 197.

69. Pila Hernández, H., Roland Shimey, M. (2009). Detección y selección de Talentos para la iniciación en el Deporte, categorías conceptuales. *Revista alto rendimiento*.

70. Réginer, G., Salmela, J., Russel. S. J. (1993). Talent detection and development in sport. In R. N. Singer, M. Murphy, L. K. Tennant (Eds.), *Handbook on research on sport psychology* (290 – 313). New York: Macmillan.

71. Reid, P. (2003). More than a game? The rol of sports governing bodies in the development of sport education programmes. *European Physical Education Review* (9), 309 – 317.

72. Reilly, T., Williams, A. M., Nevil, A., Franks, A. (2000). A multidisciplinary approach to talent detection in soccer. *Journal of Sports Sciences*, (22), 347 – 355.

73. Ruiz, L. M., Sánchez, F. (1997). Rendimiento deportivo: Claves para la optimización del aprendizaje. Madrid. Gymnos.

74. Schunk, D. H. (1990). Self concept and school achievement. In Rogers, C., Kutnick, P. (Eds.). *The social psychology of the primary school*. Routledge, London, 70 – 91.

75. Simonton, D. K.(1999). Talent and its development: an emergenic and epigenetic model. *Psychol Rev*, 106 (3): 435 – 457.

76. Singler, R. N., Janelle, C. M. (1999). Determining sport expertise: From Genes to Supremes. *IJSP* (30), 117 – 150.
77. Spamer, E. J., Coetzee, M. (2002). Variables which distinguish between talented and less talented participants in youth sport. A comparative study. *Kinesiology*, (2), 141 – 152.
78. Starkes, J. L., Deakin, J. M., Allard, F., Hodges, N.K, Hayers, A. (1996). Deliberate practise in sports: What is it anyway? *En K. A. Ericsson, The Road to Excellence: The Acquisition of Expert Performance in the Arts and Sciences, Sport and Games* (81 – 106). Hillsdale, NK: Lawrence Erlbaum Associates.
79. Strand, B.N., Wilson, R. (1993). Assessing sport skills. *Champaign, IL: Human Kinetics*.
80. Sousa, M., P. R., Ribeiro, A. L.P. (2009). Revisión Sistemática y Metaanálisis de Estudio de Diagnóstico y Pronóstico: una Guía. *Arq Bras Cardiol*, 92, (3), 235 – 245.
81. Tanner, J. M. (1964). The physique of Olympic athlete. *George Allen & Unwin, London*.
82. Terrados Cepeda, N; Gil, R., Campos, N. (2004). Genética y Deporte. *Apunts: Educació Física i Esports*, N°77, 85 – 88.
83. Tucker, R., Collins, M. (2012). What makes champions? A review of the relative contribution of genes and training to sporting success. *Journal of Sports Medicine*, 46:555–561.
84. Vaeyens, R., Lenoir, M., Williams, A. M., Phillipaerts, R. M. (2008). Talent identification and development programmes in sport: Current models and future directions. *Sport Medicine*, (38), 703 – 714.
85. Voight, M. (2002). Improving the quality of Training: Coach and Player responsibilities. *JOPERD* (73), 43 – 48.
86. Welsman, J. R., Armstrong, N. (2000). Longitudinal changes in submaximal oxygen uptake in 11 to 13 years – olds. *J. Sports Sci.* (18). 183 – 189.
87. Williams, A. M. (2000). Perceptual Skill in soccer: Implications for talent identification and development. *Journal of Sports Sciences*, (18), 737 – 750.

88. Williams, A. M., Reily, T. (2000). Talent identification and development in soccer. *Journal of Sport Sciences*, (18), 657 – 667.
89. Zatsiorskik, V. M. (1989). *Metrología deportiva*. Moscú. Planeta.
90. Zatsiorky, V. M. (1995). *Science and practise of strength training*. Champaign, IL: *Human Kinetics*.